



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2016ko martxoaren 3a

30. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Iruñeko Udalarari buruzko fiskalizazio txostena, 2014ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Iruñeko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2014ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko azaroaren 16an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik Kontuen Ganberak emandako fiskalizazio txostena, Iruñeko Udalari buruzkoa, 2014ko ekitaldikoa, ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Erabakia Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2015eko azaroaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Iruñeko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2014ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I.** Sarrera (3. or.).
- II.** Datu orokorrak (4. or.).
- III.** Helburua (7. or.).
- IV.** Norainokoa (8. or.).
- V.** Iritzia (9. or.).
 - V.1. Udalaren 2014ko kontu orokorrari buruzko finantza-irritzia (9. or.).
 - V.2. Legezketasunaren betetzeari buruzko iritzia (10. or.).
 - V.3. Udalaren finantzen egoera-orri bateratua 2014-12-31n (10. or.).
 - V.4. Aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasunaren helburuak betetzea. (12. or.).
 - V.5. Aurreko ekitaldietako gomendioen betetzea (14. or.).

- VI.** Finantza egoera bateratuak (15. or.).
 - VI.1. 2014ko ekitaldiko aurrekontu bateratua-
ren likidazioaren egoera-orria (15. or.).
 - VI.2. 2014ko ekitaldiko aurrekontu bateratua-
ren emaitza (15. or.).
 - VI.3. Diruzaintza-gerakin bateratuaren egoera-
orria 2014ko abenduaren 31n (16. or.).
 - VI.4. 2014ko abenduaren 31ko egoeraren
balantze bateratua. (16. or.).
- VII.** Ondorioak eta gomendioak (17. or.).
 - VII.1. Alderdi orokorrak (17. or.).
 - VII.2. Udaleko langile-gastuak (17. or.).
 - VII.3. Udalaren ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea (21. or.).
 - VII.4. Udalaren inbertsioak (22. or.).
 - VII.5. Udalaren transferentziengatiko gastuak (23. or.).
 - VII.6. Tributuak, prezio publikoak eta Udala-
ren bestelako diru-sarrerak (25. or.).
 - VII.7. Transferentzien bidezko eta ondarearen
bidezko diru-sarrerak (27. or.).
 - VII.8. Udalaren inbertsio errealean besteren-
tzea (28. or.).
 - VII.9. Abenduaren 31n ebazteko dauden erre-
kurtso judizialak (28. or.).

Behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioak (30. or.).

Behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioei Kontuen Ganberak emandako erantzuna (38. or.).

Eranskina: Iruñeko Udalaren urteko kontu bateratuen oroitidazkia, 2014ko abenduaren 31ri dagokiona.

Oharra: Aipatutako eranskinak foru parlamentarien esku daude Legebiltzarreko Zerbitzu Orokortako bulegoetan eta honako web helbidean: www.cfnavarra.es/camara.comptos.

I. SARRERA

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Kontuen Ganberak Iruñeko Udalak 2014ko ekitaldian izandako jarduera finantzarioari buruzko arauzkotasunaren fiskalizazioa egin du.

Azterlan hori Kontuen Ganberak 2015. urterako onartu zuen fiskalizazioko urteko programan sartu zen, eta auditoriako zenbait teknikarik eta auditore batek osatutako lantaldeak egin zuen, Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboekin lankidetzan. Azterketa lana 2015eko uztaila eta iraila bitartean egin zen.

Txosten hau idazteko garaian, Udaleko Osoko Bilkurak ez du kontu orokorra onetsi; hori dela eta, Ogasun Alorreko Zuzendaritzak egindako kontua fiskalizatu dugu, Kontuen Batzorde Bereziak 2015eko irailaren 28an bere egin baitzuen. Kontu hori, gaur egun, jendaurreko fasean dago.

Txostenak sei atal ditu, sarrera hau barne. Bigarren atalean Udalaren administrazio- eta antolamendu-egitura deskribatzen dugu, bai eta 2014an aplikatzekoa den araudia ere. Hirugarren ataletan, egindako lanaren helburua eta norainokoa erakusten ditugu; eta laugarrenean, berriz, Udalaren Kontuari buruzko iritzia, legezketasunaren betetzea, egoera ekonomiko bateratuta eta aurreko ekitaldietan emandako gomendioen betetzea azaltzen ditugu. Bosgarren atalean, egoera orri bateratuak gehitu ditugu. Azkenik, seigarrenean, fiskalizazioaren ondorio aipagarrienak azaldu eta udal kudeaketa hobetzeko egokitzat jotzen ditugun gomendioak ematen ditugu.

Fiskalizazio-txostenarekin batera 2014ko ekitaldiko urteko kontu bateratuen oroitidazkia, Udalak egindakoa, erantsi dugu.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Udaleko, haren erakunde autonomoetako, enpresa publikoetako eta fundazioko langileei, lan hau egiteko emandako laguntzarengatik.

II. DATU OROKORRAK

Iruña udalerrri bat da, 2014ko urtarrilaren 1ean zuzenbideko 196.166 biztanle zituen eta 25,1 km²ko azalera duena.

Udal antolamendua, besteak beste, honako organoek osatzen dute: Osoko Bilkura, zeina ordezkari politikoaren organo gorena baita, Tokiko Gobernu Batzarra eta Alkatetza.

Udalaren administrazio-egitura, Alkatetzaren 2011ko ekainaren 27ko Dekreturen bidez onetsia, honakoa da: Alkatetzaren Kabinetea; Aholkularitza Juridikoaren Zuzendaritza; Gerentzia eta zortzi gobernu alor. 2015eko maiatzaren 24ko hauteskundeen ondotik egitura hori aldatu egin da.

Alkatetzaren Kabinetea, Aholkularitza Juridikoaren Zuzendaritza eta Gerentzia zuzenean alkatetaren menpekoak dira, eta gobernuko zortzi alorrak zinegotzi delegatuen menpekoak dira. Zortzi alorrak, zeinetatik hiru bi unitate organikotan xehatzen baitira, 11 zuzendarik, bi zuzendariordek eta 11 idazkari teknikok zuzentzen dituzte.

Udalak, zerbitzu publikoak kudeatzeko, ondoko enteak sortu ditu:

- Erakunde autonomoak
 - a) Udalaren haur eskolak, haur eskolen zerbitzuaren kudeaketarako.
 - b) Hirigintzaren Udal Gerentzia, Iruñeko udalerrriaren hirigintzaren kudeaketarako.
- Merkataritza-sozietateak: Udalak partaidetzaren gehiengoa dauka honako merkataritza-sozietate hauetan:


Enpresa	Partaidetzaren portzentajea	Xede soziala
Comirruña, S.A.	100	Txikizkako merkatuak
Pamplona Centro Histórico S.A.	100	Hirigune historikoaren hirigintza
Asimec, S.A.	100	Etkez etxeko laguntza
Animsa	77,69	Udal informatika.
Mercairuña, S.A.	51	Handizkako merkatuak

- Gayarre Antzokiaren Fundazioa, Gayarre antzokia kudeatzeko eta administratzeko.

Gainera, Erruki Etxearen Fundazioa, hirugarren adinekoei laguntza ematen diharduena, Iruñeko Udalari lotuta dago orain dela 300 urte baino gehiago, baina, Ganbera honen ustez, fundazio pribatu bat da.

5

Iruñeko Udalaren eta haren menpeko enteen egitura –ente horien artean Erruki Etxearen Fundazioa sartu dugu– honako organigraman jasotakoa da:



(1) Administrazio orokorrean, Gerentzia, Aholkularitza Juridikoaren Zuzendaritza eta Alkatezaren Kabinetea daude, zeinak alkatearen menpe baitaude.

Udalaren eta haren menpeko enteen datu ekonomiko eta langileei buruzko datu nagusiak honako hauek dira 2014ko ekitaldiaren itxieran:

- Administrazioaren Sektore Publikoa:

	Aitortutako eskubideak	Aitortutako betebeharrak	Langileak, 2014-12-31n
Udala	188.928.050	181.634.114	1.423*
Hirigintza Gerentzia	5.839.681	11.282.683	30
Haur-eskolak	7.851.098	7.974.023	163

(*) 184 pertsona gizarte enplegu babestuan daude.

2014an, Udalak 5.456.259 euroko ekarpena egin zien haur-eskolei, eta 2.304.711 euroko ekarpena, berriz, Hirigintza Gerentziari.

- Merkataritza-sozietateak:

Enpresak	Diru-sarrerak	Gastuak	Ekitaldiko emaitzak	Enplegatu kopuruaren batez bestekoa
Comiruña, S.A.	544.834	498.737	46.097	6,34
Mercairuña, S.A.	1.335.113	1.124.935	210.178	13
ANIMSA	6.656.082	6.573.873	82.209	109
Pamplona Centro Histórico, S.A.	2.770.808	2.670.905	99.903	3,8
Asimec, S.A.	1.876.560	1.908.242	-31.682	68,32

- Fundazioa:

Fundazioa	Diru-sarrerak	Gastuak	Ekitaldiko emaitzak	Langileen batez besteko kopurua
Gayarre Antzokia	2.075.068	2.044.792	30.276	15

Horretaz gainera, Erruki Etxeak honako datu ekonomikoak dauzka.

	Diru-sarrerak	Gastuak	Ekitaldiko emaitzak	Langileen batez besteko kopurua
Erruki Etxea	18.172.064	16.815.875	1.356.189	199,97

Udala Iruñerriko Mankomunitateko kidea da, eta haren bidez kudeatzen ditu uraren ziklo integralaren zerbitzuak (ur-hornidura eta behe presioko saneamendua), hiri-hondakin solidoen tratamenduko zerbitzuak eta hiri-garraioko zerbitzuak (autobusa eta taxia).

Iruñeko Udalarari 2014ko ekitaldian aplikatzekoa zaion araubide juridikoak funtsean osagai hauek ditu: Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea, bai eta sektorekako araudi indarduna ere.

2014ko ekitaldirako ez zen aurrekonturik onetsi; izan ere, 2011ko ekitaldiko aurrekontu orokorra eta haren betetze-oinarriak luzatu ziren. Txosten hau idazteko garaian, Udalaren Osoko Bilkurak ez du 2014ko ekitaldiko kontua onetsi.

III. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Iruñeko Udalaren 2014ko ekitaldiko arauzkotasunari buruzko fiskalizazioa egin genuen.

Lana honen xedea gai hauei buruz gure iritzia ematea da:

- Ea 2014ko ekitaldiko Kontu Orokorrak bere alderdi nagusi guztietan behar bezain irudi doia erakusten zuen, 2014ko abenduaren 31n, ondareari, finantza-egoerari, aurrekontuaren likidazioari eta ekonomia-emaitzari buruz, aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraituz.

- Ea Udalak legeak bete dituen 2014ko ekitaldian izandako jarduera finantzarioan.

- Udalaren eta haren menpeko enteen finantza-egoera bateratua 2014ko abenduaren 31n.

- 2014ko ekitaldirako aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasuneko helburuen betetzea, eskura dagoen informazioari jarraituz.

- Ea 2013ko ekitaldiari buruzko fiskalizazio-txostenean emandako gomendioak bete diren.

Txostenari erantsi zaizkio, halaber, egokitzen diren aholkuak, Udalak eta haren menpeko entitateek ezarritako barne-kontrolako sistema, sistema administratiboa eta kontabilitate-nahiz kudeaketa-sistemak hobetu edo/eta osatze aldera.

IV. NORAINOKOA

Fiskalizazioaren norainokoa 2014ko kontua da. Haren prestaketa eta edukia Udalaren erantzukizuna da eta, 272/1998 Foru Dekretuaren arabera, honako kontabilitateko egoera-orriek osatzen dute:

- Aurrekontuaren likidazioaren espedientea.
- Egoera-balantzea eta galeren eta irabazien kontua.
- Eranskinak: diruzaintzako egoera-orria, etorkizunerako hitzartuta dauden gastuen eta diru-sarreraren egoera-orria, balioen egoeraren egoera-orria eta mugimendua, eta tasa eta prezio publikoekin finantzatutako zerbitzuen kostuei buruzko oroitidazkia.

Horri dagokionez, berriz ere esan behar dugu ez dugula fiskalizatu Osoko Bilkurak onetsitako kontu orokorra, baizik eta Ogasun Alorreko Zuzendaritzak egindakoa, Kontuen Batzorde Bereziak bere egin zuena.

Fiskalizazio-lana honetan zetzan: Udalaren barne kontrola, aurrekontuko gastu eta diru-sarreraren lagin bat eta ondare-kontuak aztertzea, hautapen-proba batzuen bitartez eta lanaren xedeak betetzeko beharrezkotzat jotzen diren bestelako auditoria-teknika batzuk erabiliz.

Halaber, kanpoko profesionalak enpresa publikoetan eta Gayarre Antzokia udal fundazioan egindako auditoriak aztertu ziren.

Bestalde, finantzen egoera-orri bateratua –hau da, Udalarena, erakunde autonomoena eta hark partaidetza osoa duen sozietateena– aztertu zen; eta, bestalde, aztertu zen Udalak, erakunde autonomoek, merkatukotzat jotzen ez diren udal sozietateek eta Gayarre Antzokiaren Fundazioak finantza-egonkortasunaren eta -iraunkortasunaren helburuak bete dituzten.

Lana Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Kontuen Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan garatutako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta araei jarraituz gauzatu da; horien barruan, "Fiskalizazio edo auditoria finantzarioaren oinarritzko printzipioak" izeneko ISSAI-ES 200 araua eta "Betetzeari buruzko fiskalizazioaren edo auditoriaren oinarritzko printzipioak" izeneko 400 araua aplikatu dira.

V. IRITZIA

Iruñeko Udalaren 2014ko ekitaldiko kontu orokorra fiskalizatu dugu. Haien kontabilitatearen egoera-orriak laburbilduta jaso ditugu txosten honetako VI. atalean.

UDALAREN ERANTZUKIZUNA

Ogasun Alorreko Zuzendaritza da kontu orokorrak egiteko ardura duena. Halako moduz egin behar ditu non leialki irudikatuko baitituzte Udalaren aurrekontu-likidazioa, ondarea, emaitzak eta finantza-egoera, aplikatzekoa den finantza-informazio publikoari buruzko arau-esparruarekin bat; erantzukizun horrek hartzen ditu iruzurraren edo akatsen ondoriozko ez-betetze materialetatik libre dauden kontu orokorrak egin eta aurkezteko beharrezkoa den barne kontrolaren kontzepzioa, ezarpena eta mantentzea.

Udalak, gainera, bermatu beharko du finantzen egoera-orrietan islatutako jarduketak, finantza-eragiketak eta informazioa bat datozela indarreko araudiarekin.

NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA

Gure erantzukizuna da iritzi bat adieraztea erantsitako kontu orokorren fidagarritasunari buruz eta gure fiskalizazioan oinarrituta egin diren eragiketen legezkotasunari buruz. Horretarako, hura egin dugu Kanpo Kontroleko Erakunde publikoen fiskalizaziorako oinarrizko printzipioen arabera. Printzipio horiek exijitzen dute etikaren arloko eskakizunak bete ditzagula, bai eta fiskalizazioaren plangintza eta exekuzioa egin dezagula ere, honako helburuarekin: kontu orokorretan arrazoizko segurtasun bat lortzea eta haietan akats materialik ez egotea; eta finantzen egoera-orrietan islatutako jarduketak, finantza-eragiketak eta informazioa, alderdi adierazgarri guztietan, arau indardunen arabera izatea.

Fiskalizazio batek eskatzen du prozedura batzuk aplika ditzagula auditoria-ebidentzia bat lortzeko zenbatekoei eta kontu orokorretan adierazitako informazioari buruz, bai eta eragiketen legezkotasunari buruz ere. Hautatutako prozedurak auditorearen irizpidearen arabera dira, horren barne dela kontu orokorren akats materialei buruzko arriskuen balorazioa, akats hori iruzurraren nahiz akatsaren ondoriozkoa denean eta legezkotasunaren ez-betetze aipagarrien ondoriozkoa denean ere. Arriskuari buruzko balorazio horiek egiterakoan, auditoreak barne kontrola hartzen du kontuan –garrantzitsua baita entitateak kontu orokorrak egin ditzan– inguruabarren arabera auditoria prozedura egokiak diseinatze aldera, eta ez entitatearen barne kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko xedez. Auditoria batek barne biltzen du, era berean, aplikatutako kontabilitate-politiken egokitasuna eta arduradunek egindako kontabilitate-estimazioen arrazoizkotasuna, bai eta kontu orokorren aurkezpena ere, oro har.

Gure ustez lortu dugun auditoria-ebidentziak behar adinako oinarria eta oinarri egokia jasotzen du gure fiskalizazio-iritzia emateko.

V.1. UDALAREN 2014ko KONTU OROKORRARI BURUZKO FINANTZA-IRITZIA*IRITZIAREN OINARRIA, SALBUESPENEKIN*

- Udalak Nafarroako Gobernuaren transferentzia arrunt bat jasotzen du bere klase pasiboak finantzatzeko; horien artean sartzen dira toki entitate horren suhiltzaileen kidegoko langileak. Kidego hori Nafarroako Larrialdi Agentzian sartuta dago. Jasotako diru-laguntzaren zenbatekoa klase pasibo horien urteko kostu garbiaren arabera kalkulatu da. Kalkulu horretan ez da sartu Nafarroako Gobernuaren eskutik jasotako diru-laguntza, 864.487 eurokoa, suhiltzaileen kidegoko langileen kuota patronalaren kontzeptuan ordaindutakoa; horrek, izan ere, kopuru hori egiten duen gehiegizko finantzaketa ekarri zuen, txosten honetako VII.2 atalean zehaztu bezala.

- Udalak udal montepioari atxikitako funtzionarioen pentsioei buruzko azterlan aktuarial bat egin zuen 2009an. Azterlan horren arabera, pasiboan sistematik eratorritako betebeharrak, batez beste, urteko 21,9 milioi eginen dute 2015etik 2019ra doan aldirako. Balantzean ez zen erregis-tratu etorkizuneko betebeharrak horietarako probisiorik.

- Oroitidazkiak ez du informaziorik jasotzen abenduaren 31n ebazteko dauden eta eragin ekonomiko aipagarriak dituzten errekurtsio judizialei buruz.

IRITZIA

Gure iritzian, "Iritziaren oinarria, salbuespenekin" lerrokadan azaldutako egitateen eraginengatik ez bada, erantsitako kontu orokorrek irudi zehatza erakusten dute alderdi esanguratsu guztietan, ondareari, gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioari eta Udalaren 2014ko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokienez, bai eta data horretan amaitutako urteko ekitaldiko emaitza ekonomiko eta aurrekontukoei dagokienez ere, betiere aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraituz.

V.2. LEGEZKOTASUNAREN BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

Gure iritziz, Udalaren 2014ko ekitaldiari buruzko finantzen egoera-orrietan islatutako jarduketak, finantza-eragiketak eta informazioa bat datoz, alderdi adierazgarri guztietan, aplikatzekoak diren arauekin.

V.3. UDALAREN FINANTZEN EGOERA-ORRI BATERATUA 2014-12-31n

Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2014rako hasierako aurrekontu bateratuak, 2011ko aurrekontuaren luzapena denak, 181,65 milioi euroko eta 180,74 milioi euroko diru-sarrerak eta gastuak biltzen zituen hasierako aurreikuspenetan, hurrenez hurren.

Gastuetan eta diru-sarreretan goranzko aurrekontu-aldaketa batzuk eginda, 27 milioi eurokoak –hasierako kredituen ehuneko 15 egiten dute– behin betiko gastu eta diru-sarrera bateratuek 208,62 milioi euro egiten dute.

Nabarmenezkoa da aipatutako aurrekontu-luzapenaren bai izapidetzeak, bai edukiak araudia-
ren arabera egin direla.

2014an, gastuak 192,19 eurokoak izan dira, ehuneko 92ko betetze-mailarekin eta ehuneko 91ko ordainketa-mailarekin. 2013koak baino ehuneko 4,5 txikiagoak izan dira.

Diru-sarrerei dagokienez, 2014an 193,92 milioi euroko eskubideak aitortu ziren, ehuneko 93ko eta 92ko betetze- eta kobrantza-mailekin. Kasu honetan, 2013koekiko jaitsiera ehuneko 1,6koa izan da.

Laburbilduz, Udalak 2014an gastatutako 100 euro bakoitza honetara bideratu ziren eta honela finantzatu ziren:

Gastuaren izaera	Zenbatekoa	Finantzabidea	Zenbatekoa
Langileak	42	Tributu bidezko diru-sarrerak	44
Bestelako gastu arruntak	43	Transferentziak	53
Inbertsio errealak	7	Ondare bidezko diru-sarrerak eta beste	3
Kapital-transferentziak	3		
Finantza-pasiboak eta -aktiboak	5		

Aurreko datuetatik, nabarmenezkoa da langileen gastua eta gastu arruntena, ehuneko 42ko eta 43ko ehunekoekin, bai eta transferentzien bidezko diru-sarrerak ere, zeinek guztizkoaren ehuneko 53 egiten baitute; ondotik zergen bidezkoak datoz, ehuneko 44rekin.

Ondoren, 2014ko ekitaldiko betetze bateratuari buruzko adierazle batzuk ematen ditugu, bai eta aurreko ekitaldikoekiko alderaketa ere:

	2013	2014	2014/13 aldea (%)
Diru-sarrerak, guztira	197.055.145	193.918.711	-1,6
Gastuak, guztira	201.281.730	192.190.702	-4,5
Diru-sarrera arruntak	182.009.738	184.623.857	1,4
Funtzionamendu gastuak	162.504.170	162.610.591	0,1
Aurrezki gordina	19.505.568	22.013.266	12,9
Finantza-zama	9.218.137	9.205.582	-0,1
Aurrezki garbia	10.287.431	12.807.684	24,5
Kapitaleko diru-sarrerak	13.803.519	9.294.853	-32,7
Kapitaleko gastuak	28.382.816	19.176.536	-32,4
Aurrekontu-emaitza doitua	13.200.483	11.339.696	-14,1
Zorpetze-maila	% 5,06	% 4,99	-1,4
Zorpetze-muga	% 10,72	% 11,92	11,2
Zorpetze-ahalmena	% 5,65	% 6,94	22,8
Zorra, guztira	109.138.602	102.096.893	-6,5
Biztanle bakoitzeko zorra	554	520	-6,1
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	6.867.337	10.509.683	53,0

2014an, Udalak eta bere erakunde autonomoek aitortutako eskubide guztien ehuneko 95 diru-sarrera arruntak dira; ehuneko 4,4 kapitaleko diru-sarrerak dira, eta gainerako ehuneko 0,6a, berri, finantza-aktiboen bidezko diru-sarrei dagokie.

Udalak eta haren erakunde autonomoek, funtzionamendu-gastuak eta finantza-zama diru-sarrera arruntan bidez finantzatu ondoren, 12,81 milioi euroko aurrezki garbia lortu zuten; 2013an baino ehuneko 24,5 gutxiago.

Ikusten da ezen 2013an gertatzen zen bezala, inbertsio-erritmoa jaitsi dela: 2012an kapitaleko gastuen 36,46 milioi euro izatetik 2013an 28,38 milioi izatera eta 2014an 19,18 milioi izatera pasa da.

2014an, zorpetze ahalmen bateratua diru-sarrera arruntan ehuneko 6,94koa izan da eta guztizko zorra 102,1 milioi eurora iritsi da.

2014an, nabarmentzekoa da zorrak ehuneko 6,5 –zazpi milioi euro– egin duela behera, aurreko urtekoarekiko, are gehiago kontuan izanda kopuru hori 2013an jada ehuneko sei jaitsia zela 2012koarekiko.

Arriskuen kalifikaziorako agentzia batek BBB kalifikazioa eman zuen 2014ko apirilean Udalaren eta haren erakunde autonomoen epe luzeko zorrerako; horrek adierazten du gaitasun egokia duela interesak ordaintzeko eta printzipala itzultzeko. 2014ko urrian, agentziak kalifikazio hori hobetu zuen, eta BBB+ bilakatu zuen. 2015eko iraileko ebaluazioan kalifikazio horri eutsi zitzaion.

Bestetik, nabarmentzekoa da 2014ko ekitaldiaren amaieran sortutako diruzaintza-gerakina 10.509.683 eurokoa izan zen, ehuneko 53 handiagoa 2013koa baino; horrek adierazten du likidezia gaidikin bat badagoela, zeina erabil baitaiteke hurrengo ekitaldiko gastuak finantzatzeko.

V.4. AURREKONTU-EGONKORTASUNEN ETA FINANTZA-IRAUNKORTASUNAREN HELBURUAK BETETZEA.

Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoa aplikatzearen eraginetarako, SEC'10 Kontabilitate Nazionaleko irizpideak jarraituta, honako entek jotzen dira tokiko administrazio publikotzat: Udala bera, erakunde autonomoa (Hirigintzako Gerentzia eta haur eskolak), merkatukoak ez diren udal sozietateak¹ (Pamplona Centro Histórico, S.A., Asimec, S.A. y Animsa, S.A.) eta Teatro Gayarre Fundazioa.

Administrazio publikotzat jotako entitateen multzoak 2014ko ekitaldian aurrekontu egonkortasuneko eta finantza iraunkortasuneko helburuak bete ditu; hau da, 3,43 milioi euroko finantza-gaitasuna sortu dute; gastuaren araua bete dute, zeren eta 2014rako aurreikusitako 10,25 milioi euroko mugaren aldean gastu-tarte bat lortu baitute; haien zorpetzea diru-sarrera arrunten ehuneko 54 da, ezarrita dagoen ehuneko 110eko mugaren azpitik; eta azken hiruhilabeteko ordaintzarako batez besteko aldiak balio negatiboak dauzka², eta horrek esan nahi du araudian horrelako gastuak ordaintzeko ezarritako 30 eguneko gehieneko epetik –edo 60 eguneko epetik, hala erabaki bada– beherakoa dela.

Asimec sozietateari dagokionez, nabarmendu beharra daukagu 2014ko abenduaren 31n desoreka ekonomikoan zegoela, eta horrek desegite automatikoa ekarriko zuela baldin eta toki entitateak horren inguruan ezer egin izan ez balu. Hala eta guztiz ere, sozietate horren kontuak formulatzerakoan, Administrazio Kontseiluak aipatzen du behar beste erreserba badituela gorabehera horri aurre egiteko; izan ere, egiaztatu dugu inguruabar hori zuzendu egin dela.

¹ Jotzen da ente bat merkatukoa dela haren produkzioa ekonomikoki aipagarriak diren preziotan saltzen bada eta salmentek gutxienez ere produkzio-kostuen ehuneko 50 estaltzen badute.

² Ordaintzeko batez besteko epeak neurtzen du nolako atzerapena gertatzen den merkataritza-zorraren ordaintzetan termino ekonomikoetan; adierazle hori Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Foru Legeko ordaintzetarako legezko epeaz bestekoa da. Adierazle horrek balio negatiboak izanen ditu baldin eta Administrazioak fakturak edo obra-ziurtagiria, kasuan kasukoa, aurkeztu eta 30 egun natural iragan baino lehen ordaintzen badu.

Ondoren, finantzaketa-gaitasunari eta gastu-tarteari buruzko kalkulua erakusten dugu, bai eta batez besteko aldia dela-eta azken hiruhilekoan izan diren balioak ere:

Finantzatzeko ahalmena

	Zenbatekoa, 2014
Finantzaz besteko diru-sarrerak	213.277.448
Gastu ez-finantzarioak	203.249.998
Saldo ez-finantzarioa	10.027.450
Doikuntzak:	
Itxitako ekitaldietako eta aurtengo ekitaldiko 1., 2. eta 3. kapituluetakako diru-sarreraren kobrantzak	-4.382.529
Europar Batasunaren diru-laguntzak	-548.751
Kontabilitate-aldeak	-1.662.854
Finantzatzeko ahalmena	3.433.316

Gastuaren araua

2013ko gastu konputagarri bateratua	170.178.861
% 1,5eko igoera	2.552.683
Diru-sarreraren igoeraren aurreikuspena	2.205.940
2014rako aurreikusitako gastuaren muga	174.937.483
2014ko gastu konputagarri bateratua	164.684.847
Gasturako tarte, 2014an	10.252.638

Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea

	Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea
Urria	-1,53
Azaroa	-6,71
Abendua	-7,23

V.5. AURREKO EKITALDIETAKO GOMENDIOEN BETETZEA

Egiaztatu dugu aurreko fiskalizazioetan egindako hurrengo gomendioak bete egiten direla:

- *Kontrolak ezarri eta aplikatu dira Civivox zentroetan eta San Juan Bosco zentroan ematen diren zerbitzuen prezioan hobariaren onuradun izateko baldintzak betetzen direla konprobatzeko.*
- *Baluarteko aparkalekuaren kontzesioaren kanona araudian ezarritako epean kobratu dadila exijitu da.*
- *Tributu ikerketarako eta ikuskapenerako unitatearen eta tributuen kudeaketarako unitateen arteko koordinazioa hobetu da, eta lehentasunezko jarduketatzat jotako tributu guztien ikuskapenak areagotu dira.*

Lehentasunezkoztzat jotzen dugu 2013ko ekitaldiko eta aurreko ekitaldietako fiskalizazio-txostenean emandako gomendio hauek betetzea:

- *Balorazio-ponentzia berraztertzeke prozesua amaitzea, besteak beste, azken hirigintza-garapenak egin diren aldeetako lur-eremuen landa-lur gisako kalifikazioa aldatzeko, bai eta planeamenduan egindako beste aldaketa batzuk jasotzeko ere.*
- *Kontu-hartzaitzaren barne kontrola areagotzea, kudeaketa ekonomikoa hobetzeko beharrezkoa eta ezinbestekoa den tresna baten gisara, eta hura ezartzea Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legean ezarritako hedadurarekin. Hau da, erabateko fiskalizazioa egitea aurrez fiskalizatu diren eta barne-kontrola pasa duten gastuen lagin bati buruz, Udalaren diru-sarrerei dagokienez, besteak beste.*
- *Diru-laguntzen plan estrategikoan ezarritako helburuekin lotutako adierazleak definitzea eta diru-laguntzen jarraipena eta ebaluazioa egitea.*
- *Jasotako fidantzen eta gordailuen kontuen saldoak erregularizatzea.*

VI. FINANTZA EGOERA BATERATUAK**VI.1. 2014ko EKITALDIKO AURREKONTU BATERATUAREN LIKIDAZIOAREN EGOERA-ORRIA**
(Udala eta erakunde autonomoak)

Gastu-aurrekontuaren betetzea. Sailkapen ekonomikoa

Kontzeptua	Kapitulua	Hasierako kreditua	Aldaketak	Behin betiko kreditua	Aitortutako betebeharrak	Ordainketak	Ordaintzeko dagoena	Betetako (%)	Aitortutako guztiaren gainean (%)
Langile-gastuak	1	81.222.500	924.685	82.147.185	80.920.121	80.325.019	595.102	98,5	42,1
Zerbitzuak eta ondasun arruntak erostea	2	71.678.769	-2.184.939	69.493.830	65.984.765	57.414.087	8.570.678	94,9	34,3
Finantza-gastuak	3	3.550.000	-677.800	2.872.200	2.235.807	2.235.907	0	77,8	1,2
Transferentzia arruntak	4	13.484.211	2.749.001	16.233.212	15.705.705	11.639.156	4.066.550	96,7	8,2
Inbertsio errealak	6	586.294	20.715.797	21.302.091	12.672.116	10.081.025	2.591.090	59,5	6,6
Kapital-transferentziak	7	850.000	6.272.537	7.122.537	6.504.420	5.758.877	745.542	91,3	3,4
Finantza-aktiboak	8	2.387.200	84.000	2.471.200	1.197.994	1.148.005	49.989	48,5	0,6
Finantza-pasiboak	9	6.979.300	0	6.979.300	6.969.775	6.969.775	0	99,9	3,6
Gastuak, guztira		180.738.274	27.883.280	208.621.554	192.190.702	175.571.751	16.618.951	92,1	100

Diru-sarreraren aurrekontuaren betetzea. Sailkapen ekonomikoa

Kontzeptua	Kapitulua	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako eskubideak	Kobrantsak	Kobratzeko dagoena	Betetako (%)	Aitortutako guztiaren gainean (%)
Zuzeneko zergak	1	49.969.440	0	49.969.440	51.728.719	47.576.347	4.152.372	103,5	26,7
Zeharkako zergak	2	7.000.000	0	7.000.000	4.402.831	3.474.626	928.204	62,9	2,3
Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	3	28.507.006	131.855	28.638.861	29.736.820	25.366.594	4.370.226	103,8	15,3
Transferentzia arruntak	4	91.086.117	927.000	92.013.117	96.031.403	94.437.995	1.593.408	104,4	49,5
Ondare bidezko diru-sarrerak	5	2.702.000	0	2.702.000	2.724.084	1.461.052	1.263.032	100,8	1,4
Inbertsio errealeen besterentzea	6	0	1.652.160	1.652.160	2.232.234	2.232.234	0	135,1	1,2
Kapital-transferentziak	7	0	11.614.793	11.614.793	5.882.515	4.242.458	1.640.058	50,7	3,0
Finantza-aktiboak	8	2.387.200	5.664.683	8.051.883	1.180.104	824.512	355.593	14,7	0,6
Finantza-pasiboak	9	0	6.979.300	6.979.300	0	0	0	0,0	0,0
Diru-sarrerak, guztira		181.651.763	26.969.791	208.621.554	193.918.710	179.615.818	14.302.893	92,9	100

VI.2. 2014ko EKITALDIKO AURREKONTU BATERATUAREN EMAITZA
(Udala eta erakunde autonomoak)

Kontzeptua	2013ko ekitaldia	2014ko ekitaldia
Aitortutako eskubide garbiak	197.055.145	193.918.711
Aitortutako betebeharrak garbiak	-201.281.730	-192.190.702
Aurrekontu-emaizta	-4.226.585	1.728.009
Doikuntzak		
Finantzaketaren desbideratze positiboa	-5.437.361	-4.838.358
Finantzaketaren desbideratze negatiboa	15.660.519	8.874.964
Diruzaintza-gerakinarekin finantzatutako gastuak	7.203.910	5.575.082
Aurrekontu-emaizta doituak	13.200.483	11.339.696

VI.3. DIRUZAINZA-GERAKIN BATERATUAREN EGOERA-ORRIA 2014ko ABENDUAREN 31n (Udala eta erakunde autonomoak)

Kontzeptua	2013ko ekitaldia	2014ko ekitaldia	Aldearen ehunekoa
(+) Kobratzeko dauden eskubideak	49.031.576	33.332.076	-32,0
(+) Aurrekontuko diru-sarrerak: Aurtengo ekitaldia	18.222.514	13.383.156	
(+) Aurrekontuko diru-sarrerak: Itxitako ekitaldiak	41.616.897	32.809.132	
(+) Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	300.717	308.861	
(+) Ordainketen itzulketak	6.635	4.585	
(-) Bilketa zaileko eskubideak	-10.986.920	-12.816.815	
(-) Aplikatzeko dauden diru-sarrerak	-128.267	-356.843	
(-) Ordaintzeko dauden betebeharrak	-50.521.390	-31.243.579	-38,2
(-) Gastuen aurrekontua: Aurtengo ekitaldia	-20.712.276	-16.618.951	
(-) Gastuen aurrekontua: Itxitako ekitaldiak	-21.951.346	-7.415.906	
(-) Aurrekontuz kanpoko gastuak	-6.880.446	-7.060.452	
(-) Egiteko dauden itzulketak	-995.105	-164.815	
(+) Aplikatzeko dauden ordainketak	17.783	16.546	
(+) Diruzaintzako funts likidoak	33.996.334	29.123.129	-14,3
(+) Finantzaketaren desbideratze metatu negatiboak	21.965.250	21.247.822	
= Diruzaintza-gerakina, guztira	54.471.770	52.459.448	-3,7
Diruzaintza-gerakina, finantzaketa atxikia duten gastuak direla-eta	21.904.669	16.353.453	-25,3
Baliabide atxikien diruzaintza-gerakina	25.699.663	25.596.312	-0,4
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	6.867.337	10.509.683	53,0

VI.4. 2014ko ABENDUAREN 31ko EGOERAREN BALANTZE BATERATUA.

(Udala, erakunde autonomoak eta Comirua, S.A., Pamplona Centro Histórico, S.A. eta Asistencia Municipal en Casa, S.A. udal enpresak)

Deskribapena	Itxitako urteko zenbatekoa (2014)	Deskribapena	Itxitako urteko zenbatekoa (2014)
A IBILGETUA	1.191.045.705	A FUNTS BEREKIAK	1.146.980.537
1 Ibilgetu materiala	525.036.732	1 Ondarea eta erreserbak	715.574.324
2 Ibilgetu ez-materiala	22.379.292	2 Ekitaldiko emaitza ekonomikoa (etekina)	27.402.917
3 Erabilera orokorreko azpiegiturak eta ondasunak	634.571.749	3 Kapitaleko diru-laguntzak	404.003.296
4 Herri-ondasunak	0	B ARRISKUETARAKO ETA GASTUETARAKO HORNIDURAK	0
5 Finantza-ibilgetua	9.057.933	4 Hornidurak	0
B HAINBAT EKITALDITAN BANATU BEHARREKO GASTUAK	0	C EPE LUZEKO HARTZEKODUNAK	102.110.592
6 Kitatu beharreko gastuak	0	4 Jesapenak, maileguak eta jasotako fidantzak eta gordailuak	102.110.592
C ZIRKULATZAILEA	90.518.333	D EPE LABURREKO HARTZEKODUNAK	32.472.909
7 Izakinak	11.091.600	5 Itxitako aurrekontuetako eta aurrekontuz kanpoko hartzekodunak	32.116.134
8 Zordunak	47.080.818	6 Aplikatzeko dauden kontusailak eta aldizkatzearen ondoriozko doitzeak	356.775
9 Finantza-kontuak	32.315.413		
10 Finantzaketaren egoera iragankorrak, aldizkatzeak eragindako doitzeak. Aplikatzeko.	30.502		
11 Aplikatzeko dagoen emaitza (ekitaldiko galera)	0		
Aktiboa, guztira	1.281.564.038	Pasiboa, guztira	1.281.564.038

VII. ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Atal honetan deskribatzen dira erregularitasunari buruz egindako fiskalizazioaren harira lortutako ondorio nagusiak, bai eta Udalaren kudeaketa ekonomikoa hobetzeko gomendioak ere.

VII.1. ALDERDI OROKORRAK

2014rako aurrekontuen proiektua Osoko Bilkurak errefusatu zuen 2013ko azaroan; 2014rako udal aurrekontua 2011ko ekitaldiko aurrekontuaren ondoz ondoko luzapen bat da. 2011ko aurrekontu hori 2013ko abenduan onetsi zuen Osoko Bilkurak.

Luzapen espedienteak aurrekontu-kudeaketari buruzko 279/1998 Foru Dekretuan aurreikusitako baldintza guztiak betetzen ditu.

Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2014ko aurrekontuen likidazioa Alkatetzaren 2015eko ekainaren 12ko ebazpen batez onetsi zen. Txosten hau idazteko egunean Udalaren Osoko Bilkurak ez du onetsi 2014ko ekitaldiko kontu orokorra.

Nabarmentzekoa da espediente elektronikoen kudeatzailearen aplikazioa Udalak aurrera eramandako jarduera ia osora zabaldu dela.

2014ko kontuei dagokienez, Haur Eskolak eta Hirigintzako Gerentzia erakunde autonomoen kontuak, Gayarre Antzokiaren kontuak, eta Udalak partaidetzaren gehiengoa duen enpresa publikoen kontuak –Comiruña, S.A., Pamplona Centro Histórico, S.A., Asimec, S.A., Animsa eta Mercairuña, S.A.– kanpoko profesionalek auditatu dituzte, eta kasu guztietan –Haur Eskolak erakundearen kasuan izan ezik– aldeko iritzia eman dute.

Haur Eskolak erakundearen kasuan, iritzia aldekoa da, baina salbuespen batekin, zeren eta 2014an jasotako zerbitzuengatik izandako gastuei dagozkien 93.000 euro ez baitira kontabilizatu, aurrekontu-krediturik ez edukitzeagatik. Gastu hori 2015ean erregistratu zen.

Era berean, erakunde autonomoetan, udal sozietatean eta Gayarre Antzokia Fundazioan, jarduera ekonomiko finantzarioaren legezkotasuna betetzeari buruzko auditoria bat egin zen, eta kasu guztietan aldeko iritzia eman zen.

Ez da aurkitu nabarmentzeko moduko zenbatekoa duten 2014ko fakturarik 2015eko aurrekontuari egotzi zaionik.

Gomendatzen dugu aurrekontuaren likidazio-espedientea eta Kontu Orokorra legez ezarritako epean onestea.

VII.2. UDALEKO LANGILE-GASTUAK

Langile-gastuak 74,52 milioi eurokoak izan ziren 2014an. Ekitaldi horretan aitortutako betebeharren guztizkoaren ehuneko 41 egiten dute. Haien betetze-maila behin betiko kredituen ehuneko 98,56 da. Guztizko gastua ehuneko 0,22 jaitsi da 2013koaren aldean.

Honakoak dira 2014an sortutako langile-gastuak, kontzeptu ekonomikoen arabera sailkatuta:

Kontzeptua	Aitortutako betebeharrak (2013)	Aitortutako betebeharrak (2014)	2014/2013 aldea (%)
Hautetsien lansariak	871.394	911.707	5
Behin-behineko langileen ordainsariak	1.900.659	882.261	-54
Funtzionarioen ordainsariak	36.708.530	38.890.675	6
Lan-kontratupekoen soldatak	920.542	730.375	-21
Aldi baterako lan-kontratupekoen lansariak	3.880.905	2.741.300	-29
Gizarte Segurantza	9.227.997	9.261.055	0,4
Pentsioak:	20.923.441	20.838.612	-0,4
Prestakuntza	248.181	263.489	6
Langileria-gastuak, guztira	74.681.650	74.519.473	-0,22

Ikus daitekeen bezala, guztizko gastuari eusten zaion arren, kontzeptu ekonomiko bakoitzaren aldea nabarmena da kasu batean edo bestean. Nabarmentzekoa da behin-behineko langileen

arloko gastuak edo aldi baterako lan kontratuetan egindakoak behera egin dutela eta langile funtzionarioei dagokienak, berriz, gora.

Alde horien funtsezko arrazoia da Udaleko Giza Baliabideen Zuzendaritzaren langile-programan aldaketa bat izan dela, eta horrek eragozten duela langileak orain artekoaz beste modu batera sailkatzea. Programa berriak berarekin ekarri du langile-gastua sailkatzea pertsona bakoitzak jabetzan daukan lanpostuaren arabera, eta ez betetzen duen lanpostuaren arabera. Hartara, esate baterako, izendapen libreko karguak betetzen zituzten langile funtzionarioak lehen "Behin-behineko langileen lansariak" kontzeptuaren pean sartzen ziren; 2014an, berriz, "Langile funtzionarioen lansariak" kontzeptuaren pean sailkatzen dira. Gauza bera gertatzen da aldi baterako langileekin; izan ere, lehen administrazio-kontratupekoak haien artean sartzen ziren; orain, berriz, langile funtzionarioen atalaren barruan sartzen dira.

Gainera, programan egin den aldaketa horrek eragin du ezen, batzuetan, pertsona baten nominan kolektibo desberdinei dagozkien lansari-kontzeptuak egonda ere (esate baterako, langile funtzionarioen atzerapenen ordainketa eta pentsioen ordainketa, zeinak beste kontzeptu ekonomiko bati baitagozkio), nomina horren guztizko gastua "pentsioen" kontzeptu ekonomikoari aplikatzen zaiola. Horrek berarekin dakar eskuzko zuzenketak egin behar izatea gastua aurrekontuari aplikatu baino lehen, horrek dakarren arriskuarekin.

Horri dagokionez, Udala azaldutako gabezi guztiak zuzentzen ari da.

Udalak ez zuen plantilla organikoa onetsi, ez langileen zerrenda, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bateratua onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru-dekretuak ezarritakoaz bestera.

2014ko abenduaren 31n, kontu orokorrari buruzko oroitidazkian ageri den bezala, Udalak 1.424 lanpostu zeuzkan; horietatik, 1.343 funtzionario-araubidekoak ziren. Hona haien egoera:

Egoera	Lanpostu kopurua
Postu beteak	836
Hutsak	397
Lanpostu huts erresebadunak	156
Izendapen askea	35
Guztira	1.424

Hurrengo taulan jaso dugu lanpostuak nola dauden banatuta Udaleko zuzendaritzen artean:

Udaltzaingoaren Zuzendaritza	Lanpostu kopurua	Guztizkoaren gainean (%)
Udaltzaingoa	490	34,4
Hezkuntza eta Kultura	173	12,1
Gizarte Ongizatea eta Berdintasuna	160	11,2
Hiri-kontserbazioa	149	10,5
Ogasuna	101	7,1
Giza baliabideak	71	5,0
Ingurumena	68	4,8
Herritarren Partaidetza, Gazteria eta Kirola	62	4,4
Hirigintza eta Etxebizitza	50	3,5
Herritarren Segurtasuna	35	2,5
Proiektuak	25	1,8
Aholkularitza juridikoa	21	1,5
Enplegua, Merkataritza eta Turismoa	7	0,5
Alkatetza kabinetea	6	0,4
Gerentzia	6	0,4
Guztira	1.424	100

Bistan denez, lanpostuen ehuneko 34 Udaltzaingoari dagozkio; ehuneko 12 Hezkuntza eta Kulturari; ehuneko 11 Gizarte Ongizateari eta Berdintasunari; ehuneko hamar Hiri Kontserbazioari, eta gainerako zuzendaritzetako langileak, azkenik, ehuneko hamarretik behera daude.

- Nominaren barne kontrola.

Ganbera honen aurreko txostenetan agertzer eman denez, barne-kontrolak ez du nominaren gaineko kontu-hartzerik egiten.

Horri dagokionez, kontu-hartzaitzak kontu orokorrari buruz egindako txostenak azaltzen du lan hori ez egiteko arrazoiek lotura dutela gastua aurrekontuari ez aplikatzearekin, dokumentazio faltarekin, baliabide eta denbora eskasak izatearekin eta abarrekin.

- Lan eskaintza publikoa eta lanpostuen hornitzea.

2014an, aurreko urteetan bezala, ez zen lan eskaintza publikorik izan. Horrek zailago egiten du langile finkoak sartzera eta eragina du plantillako lanpostu hutsen kopuruan eta aldi baterako langileen kopuruan.

Lanpostuak hornitzeari dagokionez, 2014ko abuztuan Nafarroako Administrazio Auzitegiak baietsi egin zuen Udalaren aurka aurkeztutako gora jotzeko errekurtoa, eta ezarri zuen merezimendu lehiaketaren bidezko deialdia egin beharra zegoela Gizarte Ongizatearen Alorreko programetako arduradun lanpostu huts batzuk betetzeko. Ordura arte, behin-behineko esleipenaren sistema erabilia zen, edo zerbitzu-eginkizunena, baina prozedura horiek iragankorrak izan behar dute eta ezin dute urtebeteko iraupena gainditu; Udalean, berriz, ez zen hori betetzen.

- Langile pasiboen lansariak

Lansari horiek 2014an 20,84 milioi euro egin zuten. Ia 2013ko mailari eutsi zioten, ondoren erakusten dugun bezala:

	2013		2014		2014/2013 aldea (%)	
	Onuradunen kopurua	Zenbatekoa	Onuradunen kopurua	Zenbatekoa	Onuradunen kopurua	Gastua
Erretirodunak	551	15.481.402	550	15.610.510	-0,2	0,8
Alarguntasuna	279	4.296.853	268	4.200.624	-3,9	-2,2
Zurztasuna	93	1.086.199	87	1.027.478	-6,5	-5,4
Guztira	923	20.864.455	905	20.838.612	-2,0	-0,1

Lansari horien finantzaketa hiru bidetatik egiten da: zati bat Udalak jartzen du; bestea klase pasiboen araubideari atxikitako funtzionarioen nominetan egindako atxikipenen bitartez lortzen da; eta azken zatia, berriz, Nafarroako Gobernutik heldu da.

10/2003 Foru Legeak, Nafarroako administrazio publikoetako funtzionarioen eskubide pasiboen araubide iragankorra arautzen duenak, hauxe ezarri zuen hamargarren xedapen gehigarrian:

“...Iruña, Tafalla eta Tuterako udalek euren montepioko klase pasiboen urteroko kostu garbia finantzatuko dute, ehuneko 77,1ean. Osotarako diru kopurua ez da inola ere 9.312.961 eurotik, 454.520 eurotik eta 1.082.046 eurotik gorakoa izanen, hurrenez hurren. urtetik aurrera, dirumuga horiei kasuko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorreari buruzko foru legeak pentsioetarako finkatzen duen igoera aplikatuko zaie. Aurreko kostu garbi osotarako finantzatzeko behar diren kopuru osagarriak Nafarroako aurrekontu orokorretatik hartuko dira...”

Klase pasibo horien urteko kostu garbiaren kalkulua berraztertu dugu, Udalari dagokiona, eta honako hauek dira ondorioak:

Klase pasiboen barruan, Udaleko suhiltzaileen kidegoko langileak sartzen dira; langile horiek hasiera batean Nafarroako Su-itzaltze eta Salbamendurako Partzuergoan sartu ziren, eta 2006ko uztailetik aurrera, Nafarroako Gobernuaren eta Udalaren arteko akordio baten bidez, Nafarroako Larrialdi Agentzian. Aipatutako akordioko 2. artikulua honakoa zioen berariaz langile horiei buruz:

“...a) Langile horiek Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren menpean egonen dira organikoki eta funtzionalki. Horrek ez du galarazten Iruñeko Udalaren Gizarte Babeserako Montepioaren eta Klase Pasiboen kudeaketa bateratua.

b) Aurreikuspen sozialeko jatorrizko sistemari jarraituko dute (eskubide pasiboak eta osasun laguntza). Horretarako, Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioak bi diru-sarrera hauek

eginen ditu hilero: alde batetik, aplikatu beharreko arauen arabera, udal montepioko kotizazio gisa transferitutako funtzionarioei atxikitako diru kopurua, eta, bestetik, langileen mailako hasierako soldadari, graduari eta antzinatasunari buruz patronala den aldetik dagokion kotizazioa, gaur egun % 65'51..."

Egiaztatu dugu Udalak aipatutako akordioko b) letrari dagozkion diru-sarrerak jaso dituela. Halaber, Udalaren oroitidazkian inguruabar hori aipatzen da. Hala eta guztiz ere, klase pasibo horien urteko kostuari buruzko ziurtagirian, Udalak Nafarroako Gobernuarentzat egiten duen horretan, ez da jasotzen langile horien kuota patronalarengatik jasotako diru-sarrerari dagokion zenbatekoa, baina bai klase pasiboen araubideari atxikitako langileei nominan egindako atxikipe-nei dagokiena.

Azken batean, urteko kostu garbiari buruzko kalkuluan, ez da Udalak jasotzen duen diru-sarrera hori sartzen, zeina 2014an 841.318 eurokoa izan baitzen. Horrek berarekin dakar Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza, hurrengo ekitaldian guztizko kostu garbia finantzatzeko ematen dena, beharantz doitu beharra dagoela, zenbateko horren arabera.

Aurreko urteetako urteko kostu garbia nola nortu den aztertu dugu (2006tik) eta azaldutako akatsak honako zenbatekoak eduki zituen:

Urtea	Udalak suhiltzaileentzako kuota patronalaren kontzeptuan jasotako diru-sarrera
2007	1.019.421
2008	998.998
2009	1.022.531
2010	968.939
2011	967.238
2012	863.454
2013	864.487
Guztira	6.705.069

Aurreko taulak esan nahi du 2014an, urte horretan jaso baitzuen Udalak bere klase pasiboen 2013ko urteko kostu garbiaren defizita estaltzeko diru-laguntza, 864.487 euroko gehiegizko finantzaketa egon zela.

- Aldi baterako langileak

Bai 2013an, bai 2014an 33 izan dira izendapen askeko karguak bete dituztenak. Horietatik, 23k beren zerbitzuak Udalaren zortzi alorretan ematen dituzte. 11 zuzendari, bi zuzendariorde – Gizarte Ongizatearen eta Berdintasunaren alorretan– eta 10 idazkari tekniko. Hiru alorrek (Gizarte Zerbitzuak, Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurumena, eta Proiektuak eta Hiri Kontserbazioa) bina unitate organiko dauzkate, eta unitate bakoitzak zuzendari bat eta idazkari tekniko bat dauka. Sei pertsona alkatetzaren menpe daude eta gainerako lauak Udaltzaingoko burua Energia Agentziako arduraduna, Lan Arriskuen Prebentzioaren alorreko koordinatzailea eta Udaleko gerentea dira.

Langile horien nominen lagin baten ganean egindako azterketatik ondorioztatzen da ezen, orokorrean, ordaindutako lansariak betetzen den lanposturako ezarritakoak direla, eta egindako atxikipe-nek zuzenak direla; hala eta guztiz ere, egiaztatu dugu aurrekontuko aplikazioa egin dela "Langile funtzionarioen lansariak" kontzeptuaren pean, aurreko ekitaldian jarraitutako irizpidearen kontra, orduan "Behin behineko langileen lansariak" kontzeptuaren pean aplikatu baitziren.

Gure gomendioak:

- *Kontu-hartzaitzaren eta Langileen Alorraren arteko koordinazioa eta komunikazioa hobetzea, nominaren alde aurretiko fiskalizazioa bidezko eginen duten egokitzapenak egiteko.*
- *Klase pasiboen urteko kostuaren ziurtagirian sartzeari Nafarroako Gobernutik jasotako diru-sarrera, Nafarroako Larrialdien Agentzian sartutako suhiltzaileen kidegoko langileengatik kuota patronalari dagokiona, kontu orokorrari buruzko oroitidazkian deskribatu bezala.*
- *Nafarroako Gobernuarekin erregularizatzea eman zaizkion gehiegizko diru-kopuruak, klase pasiboen kostu garbiari dagozkionak.*

- *Giza Baliabideen Zuzendaritzako langileen programari dagokionez, langileen kolektiboen araberako sailkapena berrikustea eta ahal den guztian gutxitzea eskuz egiten diren eragiketak, egoki jasotze aldera langile mota bakoitzari dagozkion gastuak eta kontabilitate-akatsak saiheste aldera.*

- *Ekitaldi bakoitzerako plantilla organikoa eta langileen zerrenda onestea.*

- *Plantillako lanpostu hutsen aldi baterakotasuna aztertzea, eta lege- eta aurrekontu-xedapenek horretarako bidea ematen dutenean, langileen kontratu egonkorren bidez artatzea Udalaren egiturazkoak diren eta izaera finkoa duten jarduera eta zerbitzuak.*

VII.3. UDALAREN ONDASUN ARRUNTAK ETA ZERBITZUAK EROSTEA

Udalaren ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak 62,98 milioi eurokoak izan ziren 2014an. 2014an aitortutako betebeharren guztizkoaren ehuneko 35 egiten dute. Haien betetze-maila behin betiko kredituen ehuneko 95 da. 2013koen antzeko mailai eutsi zaie, ehuneko 0,6ko jaitsierarekin.

Ondasun arrunt eta zerbitzuetako gastuak, milioi batetik gorakoak, honakoak izan ziren 2014an:

Kontzeptua	Aitortutako betebeharrak (2013)	Aitortutako betebeharrak (2014)	Aldea (%)
Bide publikoa garbitzea	7.775.139	7.906.276	1,7
MUGAren kontratua	6.969.326	7.633.828	9,5
Berdeguneak mantentzea	3.574.529	3.854.437	7,8
Mendekotasuna duten pertsonen arreta, jardueren kudeaketa	3.157.237	3.103.554	-1,7
Kultura azpiegituren jardueren kudeaketa	2.909.959	2.952.585	1,5
Argiteria publikoaren kontsumoa	2.907.147	3.024.390	4,0
Ikastetxeen garbiketarako kontratuak	2.036.304	1.992.736	-2,1
Kirol azpiegituren jardueren kudeaketa	1.545.597	1.498.737	-3,0
Argiteria publikoaren kontratua	1.510.401	1.474.385	-2,4
Arreta programak, jardueren kudeaketa	1.274.526	1.376.543	8,0
Ibilgailuak erretiratzeko kontratua	1.169.721	1.169.721	0,0
Kultur zabalkunde programak	1.087.201	1.088.977	0,2
Osasungarritasun publikoaren arloko kontratuak	1.017.610	1.017.610	0,0

Gastuen honako lagin hau fiskalizatu da:

Kontzeptua	Aitortutako betebeharrak (2014)
Mendekotasuna duten pertsonen arreta, jardueren kudeaketa	3.103.554
Arreta programak, jardueren kudeaketa	1.376.543
Osasungarritasun publikoaren arloko kontratuak	1.017.610
Mugikortasuna, trafikoa eta semaforoaren mantentze-lanak	647.440
Mendekotasuna duten pertsonen arreta, elikagaiak	311.331
Segurtasunaren administrazio orokorra, jantziak	105.602
Segurtasunaren administrazio orokorra, bilerak, hitzaldiak	20.447
Guztira	6.582.527

Halaber, 2014an egindako ondoko esleipen hauek aztertu dira:

Kontzeptua	Prozedura	Lizitatuzaile kopurua	Lizitazio-prezioa, BEZik gabe	Esleipen-prezioa, BEZik gabe	Esleipeneko baja (%)
Energia hornidura	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik goiti	3	3.170.455	3.170.455	0
Haur eskolen garbiketa	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik goiti	12	495.868	443.802	10
Harresien kontserbaziorako mantentze-lanak	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik beheiti	2	165.289	165.289	0
Erraldoi eta buruhandien konpartsa-ren ekitaldiak	Negoziatua, Europar Batasuneko publizitaterik gabekoa	-	-	111.846	-

Gure azterketatik ondoriozta dezakegu ezen, fiskalizatutako laginean, gastuak justifikatuta, onetsita, kontu-hartzaitzak onartuta (aldez aurreko kontu-hartzaitza mugatua), egoki kontabilitzatuta eta, oro har, 30 egunetik beherako epe batean ordainduta daudela, eta esleipenak araudian ezarritakoaren arabera egin zirela.

Orokorrean, prozedurak ezarri eta aplikatu direla kontrolatze aldera fiskalizatutako zerbitzuak baldintza-orrrietan ezarritako estipulazioen arabera betetzen eta justifikatzen direla.

Aurreko fiskalizazio-lan batzuetan jada aipatu izan dugun bezala, egiaztatu dugu ezen, eduki ekonomikoa duten egintza batzuetan, aldez aurretiko kontu-hartzaitzaren eginkizunak aurrekontu-kreditua egoteaz, gastua kontusailaren arabera izateaz edo organo eskudunak onartuta egoteaz haratagoko jarduketak egin dituela. Hala eta guztiz ere, gehitutako jarduketa horiek ez daude determinatuta eta ez dira ageri fiskalizatutako espedientean edo dokumentuan.

Gomendatzen dugu Osoko Bilkurak erabaki dezala, kudeaketa prozesuan daukaten garrantziari erreparatuta, zein alderdi egiaztatu behar diren eduki ekonomikoa duten ekintzen, dokumentuen edo espedienteen aldez aurretiko kontu-hartzaitza egiterakoan.

VII.4. UDALAREN INBERTSIOAK

Udalak 2014an egindako inbertsioek 4,7 milioi euro egin zuten. Zenbateko hori Udalak ekitaldian egindako gastu guztien ehuneko 2,6 da. Haien betetze-maila behin betiko kredituen ehuneko 75 da.

Ondoren, 100.000 eurotik gorako inbertsioetan egindako gastuak erakusten ditugu:

Kontzeptua	Aitortutako betebeharrak, 2013	Aitortutako betebeharrak, 2014	2014/2013 aldea (%)
Bide publikoaren azpiegiturak	1.471.710,12	1.040.728,42	-29
Ikastetxe publikoak eta ikastegiak	490.662,75	687.630,58	40
Ondare historikorako kultur azpiegiturak	1.640.355,22	577.443,22	-65
Berdegunetarako azpiegiturak	136.828,41	451.847,66	230
Semaforo-instalazioak eta trafikoko mugikortasuna	157.505,63	255.160,13	62
Hirigintza-kudeaketarako azpiegiturak	350.117,54	183.405,84	-48
Turismoa, eraikin sozialak eta kulturalak	-	160.601,37	-
Tailer-eskolak eta tailerrak	77.676,48	147.471,48	90
Ondarea eta etxebizitzak erostea	185.704,28	143.934,37	-22
Liburutegiak	-	130.627,02	-
Eraikin sozialak: erkidegoaren harrera eta garapena	417.999,95	129.405,07	-69

Inbertsioetan egindako honako gastu hauek fiskalizatu dira:

Kontzeptua	Aitortutako betebeharrak (2014)
Lurzoruak mantentze eta kontserbatzea eta E.P.	420.008
Baluarteko, Labriteko eta Magdalenako frontearen paisaiaren antolaketa	378.576
Udaltzaingoaren komunikazioetarako matrizea	78.919
Pio XII.a-Urdazubi bidegurutzean semaforoak eta Urdazubi kalean oinezkoentzako pasabidea jartzea	72.990
San Frantzisko ikastetxeko barneko arrotzeria eta oholza berritzea	47.045

Gainera, honako esleipen hauek berrikusi ditugu:

Kontzeptua	Prozedura	Zenbat lizitatuak	Lizitazio-prezioa, BEZik gabe	Esleipen-prezioa, BEZik gabe	Esleipeneko baja (%)
Zenbait sektoretan urbanizazio-proiektuen 1. fasea eta eraispinak egitea	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik beheiti	11	4.562.580	2.838.837	38
Lezkairuko saneamendu-sarean kolektorea eta hustubidea indartzea	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik beheiti	5	638.180	505.553	21
Baluarteko, Labriteko eta Magdalenako paisaia antolatzea	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik beheiti	3	352.031	270.536	23
Udaltzaingoaren komunikazioetarako matrizea	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik beheiti	3	174.380	136.257	22
San Frantzisko ikastetxeko arrotzeria eta oholza berritzea	Prozedura negoziatua, publikotasunik gabekoa	4	58.401	38.879	33

Oro har, fiskalizatutako obren exekuzioak eta kontratu-aldaketek, bai eta berraztertutako esleipenak ere, kontratu-legedia bete dute, eta gastuak onetsita, kontu-hartzaitzak baimenduta (aurreko kontu-hartzaitza mugatua), justifikatuta eta zuzen kontabilizatuta daude.

Egindako fiskalizaziotik nabarmendu behar dugu ezen, oro har, hornitzaileei ordaintzeko epea kontratazio publikoaren araudian ezarritako 30 eguneko mugatik gorakoa izan dela; aztertutako gastuak ordaintzeko batez besteko epea 48 eguneko izan da.

Gomendatzen dugu behar diren neurriak hartzea kontratazio publikoari buruzko araudian hornitzaileei ordaintzeko ezarritako epeak betetzeko.

VII.5. UDALAREN TRANSFERENTZIENGATIKO GASTUAK

2014an, Udalak 29,82 milioi euro egiten duten transferentziak eta diru-laguntzak eman zituen. Honakoak izan ziren onuradunak:

	Arruntak		Kapitalekoak	
	Aitortutako betebeharrak	2014/13 aldea (%)	Aitortutako betebeharrak	2014/13 aldea (%)
Erakunde autonomoak	7.282.415	1,8	478.555	-90
Udal sozietateak	5.537.229	10,4	1.011.237	-
Foru Komunitatea	210.447	-2	0	-
Mankomunitatea	2.902.604	11,3	0	-
Enpresa pribatuak	96.875	76,5	20.622	-
Familiak eta irabazi asmorik gabeko erakundeak	6.958.551	-5	5.318.033	114
Guztira	22.988.121	2,7	6.828.447	-30,9

Transferentzia eta diru-laguntza arruntek 22,99 milioi euro egin zuten. 2014ko ekitaldian aitortutako betebeharren guztizkoaren ehuneko 13 dira. Haien betetze-maila behin betiko kredituen

ehuneko 98 da. Aurreko urtearen aldean, ehuneko 2,7 egin zuten gora, batez ere udal sozietateei eta Mankomunitateari ekarpen handiagoak egin zitzaizkielako.

Transferentziak eta kapitaleko diru-laguntzak 6,83 milioi eurokoak izan ziren; horrek Udalaren 2014ko gastu guztien ehuneko lau egiten du. Haien betetze-mailak behin betiko kredituen ehuneko 89,6 egin zuen. 2013an emandakoak baino ehuneko 31 gutxiago izan ziren, funtsean Hiri-gintzako Gerentziari emandako diru-laguntzak ehuneko 90 jaitsi zirelako.

Transferentzia eta diru-laguntza arrunten eta kapitalekoen honako lagin hau fiskalizatu dugu:

Kontzeptua	Aitortutako betebeharrak (2014)	Onuradunen kopurua	2014/2013 aldea (%)
Transferentzia arruntak			
Animsa	2.737.813	1	-4
Asimec	1.876.400	1	7
Hirigintzako Gerentzia	1.876.156	1	25
PCH	308.726	1	4
Kapital-transferentziak			
Etxebizitza eta zaharberritzea; familientzako transferentziak	5.271.703	635	141
Animsa	1.011.237	1	-4

Oro har, emandako eta ordaindutako transferentzia eta diru-laguntza guztiak onetsita eta fiskalizatuta daude, ezarritako akordioen edo horretarako deialdien arabera.

Animsa sozietateari dagokionez, honako alderdi hauek nabarmendu behar ditugu:

Sozietate publiko hori –Udala haren kapitalaren ehuneko 77,68aren jabea da– Udalaren zerbitzu informatikoez arduratzen da 1984tik.

2013an, Udalak jo zuen Iruñeko Udalaren informatikako proiektu eta zerbitzuak eta komunikazioak sozietate horren bitartez zuzenean kudeatzeko, kudeaketa-enkarguak egin gabe, legezko baldintzak bazeudela, zerbitzu juridikoaren txostenetan babestuta.

Ganbera honek uste du Animsa, zeinak Udalari 1984tik modu jarraituan informatika zerbitzuak eman baitizkio, tresna izaerako bitarteko eta zerbitzu tekniko gisa, Udalaren tresna-ente bat dela eta, horrenbestez, aplikatzekoa zaiola Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Foru Legeko 8. artikuluan aurreikusitakoa, eta Udalaren eta bere sozietatearen arteko harremana kasuko kudeaketa-enkargua eginez gauzatu beharra dagoela.

2014an, Animsak 3.749.050 euro jaso zituen Udaletik honako xedeetarako: 1.850.000 euro gastu arruntak finantzatzeko; 1.011.237 euro inbertsioetarako, eta 887.813 euro kanpoko hornitzaileak kontratatuzeko.

Animsak 2014ko ekitaldirako zerbitzu informatikoen programa aurkeztu zion Udalari, non ekitaldi horretarako aurreikusitako jarduketa plana eta proiektuak deskribatzen baitira. 3.704.050 euro egiten du, guztira, programa horrek, eta gero, inbertsioetarako beste 45.000 euro gehitu zitzaizkion.

Fiskalizatutako aurreko ekitaldien aldean, jasota dago Udalaren Gerentziak gehiago kontrolatu duela Animsak egiten duen jarduera.

Gure gomendioak:

- *Animsa enpresak Udalari ematen dizkion informatika-zerbitzuei aplikatzea Kontratu Publikoari buruzko Foru Legeko 8. artikuluan bitarteko berekitzat jotako tresna-izaerako enteentzako enkarguetarako ezarritako araubide juridikoa.*

- *Gastuen 2. kapitulan erregistratzea Animsak Udalari emandako zerbitzuak; eta 6. kapitulan, berriz, haietatik eratorritako inbertsioak, aurreko puntuan aipatutako enkarguen-araubidearekin koherenteak izateko.*

VII.6. TRIBUTUAK, PREZIO PUBLIKOAK ETA UDALAREN BESTELAKO DIRU-SARRERAK

Tributuengatik, prezio publikoengatik eta bestelako diru-sarrerengatik 2014an aitortutako eskubideek 83,23 milioi euro egin zuten behera. Kopuru hori Udalaren diru-sarrera guztien ehuneko 44 da. Honako hauei dagozkie:

(euroak, milioitan)

Kontzeptua	Aitortutako eskubideak		Betetakoa (%)	2014/13 aldea (%)
	2013	2014		
Zuzeneko zergak	50,60	51,73	104	2,2
Zeharkako zergak	5,90	4,40	63	-25,4
Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	26,49	27,10	106	2,2

Zenbateko handiena egiten duten aitortutako eskubideak honakoei dagozkie: hiri-kontribuzioa -27,65 milioi-, bide publikoaren aparkatze mugatuaren bidezko diru-sarrerak (MUGA) -11,84 milioi-, zirkulazio-zerga -9,54 milioi-, jarduera ekonomikoen gaineko zerga -8,73 milioi- eta lursailen balio-gehikuntzaren gaineko zerga -4,87 milioi-.

Udalak aplikatutako tasak Toki Ogasunei buruzko 2/95 Foru Legeak jasotzen duen sortaren tarte altuan kokatzen dira, hurrengo taulan ikus daitekeen bezala:

Zerga	Udala	2/95 Foru Legea
Hiri-lurraren gaineko kontribuzioa	0,3748	0,10 - 0,50
Landa-lurren gaineko kontribuzioa	0,8066	
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	1,32 eta 1,40 bitarte	1 - 1,4
Lurren balio-gehikuntza	18	8-20
Eraikuntza, instalazioak eta obrak	5	2-5
Luxuzko gastuen gaineko zerga	8	10, gehienez
Etxebizitza hutsen gaineko zerga	0,1499	0,04-0,2

Udalak ez du balorazio ponentzia gaurkotu 1998tik, eta ez da egokitu Toki Ogasunei buruzko Foru Legean ezarritako lurraren kontribuzioko zerga-tasa bakarrera; izan ere, jarraitzen du oraindik ere landa izaerako ondasunei eta hiri-ondasunei tasa berezituak aplikatzen.

Iruñeko udalerrian, Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta Katastroei buruzko 12/2006 Foru Legean jasotakoetatik zenbait inguruabar gertatzen dira, ponentzia berri bat onetsi ahal izateko: azken berrikuspenetik bost urte iragan dira eta aldaketak gertatu dira lurraren erabiler- eta aprobetxamendu-baldintzetan.

Gai horrekin lotuta, eta itxieraren ondorengo egitate gisa, nabarmentzekoa da hasierako onespina eman zaiola Iruñeko balorazio-ponentzia udal planaren determinazioei egokitzeko ponentzia partzialari.

Aztertu dugun diru-sarreraren lagina jaso dugu:

Kontzeptua	Aitortutako eskubideak	Kobrantza (%)	2014/2013 aldea (%)
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	8.734.353	83	-7,6
Udalaren kirol instalazioak	738.298	99	-22,0
Premiamendu-errekarguak	685.682	99	3,0
Hirigintza-lizentziak	433.716	79	-31,4
Salgaiak, eraikuntza-hondarrak, hesiak eta aldamiok	128.328	75	101,6
Antzeko tasa eta diru-sarrerak	-19.683	-	-89,1

Arestian aipatutako tributuen eta diru-sarreraren lagin batean egiaztatu dugu ezen, orokorrean, haien likidazioa eta diru-bilketa ordenantzen eta arau erregulatzailen arabera egin direla. Egin-dako fiskalizaziotik hainbat alderdi nabarmendu nahi ditugu. Hona:

- 2014an egindako ikuskapen jarduerak 739.324 euroko diru-sarrerak ekarri dizkiote Udalari; horietatik, ehuneko 74 EIOZari dagozkio.

- Jarduera ekonomikoen gaineko zerga: haren kudeaketak biltzen ditu Nafarroako Gobernuak ordaindu beharreko kalte-ordainak, zerga horretako kuotetan salbuespenak eta hobariak aplikatzearen ondoriozkoak, jarduera hasteagatik edo fundazio edo kooperatiba bat izateagatik.

Udalak kuotetan salbuespenak eta hobariak egiten ditu, eta gero Nafarroako Gobernuari eskatzen dio izan ez diren diru-sarrerengatik ordaina. Salbuespen eta hobari horiei dagokien kopurua honako hau izan da 2012-2014 aldian:

	2012	2013	2014
Hobariak eta salbuespenak	576.542	611.506	672.202

Hobari eta salbuespen horien aitortpena da diru-sarretan, 2013. urtearekin alderatuta, ehuneko 7,6ko jaitsiera gertatu izatearen arrazoia, zeren eta azken urte horretan bai 2012koak, bai 2013koak erregistratu baitziren.

- Pareko beste tasa eta diru-sarrera batzuk: kontusail honek 19.683 euroko aitortutako eskubide garbi negatiboak dauzka. Kontzeptu ekonomiko honen edukiaren bilakaera honako hau izan da azken hiru urte hauetan:

	2012	2013	2014
Nafarroako Gobernua (jasanarazitako BEZa)	-206.272,08	-245.559,63	-224.000,99
Bestelako diru-sarrerak	306.315,20	64.618,90	204.317,52
Aitortutako eskubide garbiak, guztira	100.043,12	-180.940,73	-19.683,47

Ikusten da aitortutako eskubide garbiak negatiboak direla funtsean jasandako BEZa dela-eta egindako aitortpenarekin lotutako kontabilitateko idatz-oharren ondorioz.

Idatz-ohar horiei dagokienez, Udalaren sistema informatikoak jarraitzen du eragozten bereiz kontabiliza dadila jasandako BEZa, enpresa-jarduerarekin lotutako gastuetatik heldu dena; izan ere, egindako gastu guztiak beren zenbateko gordinaren arabera (BEZa barne) kontabilizatzeke irizpideari jarraitzen dio.

Kontabilitate-sistemak ez dituzenez zuzenean ematen jasandako BEZaren kuotei dagozkien datuak, haiei buruzko zenbatespen bat egiten da, eta horrek okerrak ekar ditzake. Hala eta guztiz ere, txosten hau idazteko egunean ia amaitu dira sistema informatikoko hobekuntza-lanak, eta horiek bideratuko dute kuota horiek lortzea; izan ere, horrela aukera egonen litzateke gabezia horri konponbidea emateko.

Egitate hori kontabilitatearen ikuspuntutik berdintzeko, kontusail honetan diru-sarrera bat erregistratzen da, zenbatetsi den jasandako BEZ kengarriari dagokiona, eta zenbatekoa kalkulatu da BEZari buruzko 19/1992 Foru Legeko 50. eta 51. artikuluetan finkatutako prorrata orokorra aplikatuz. Txosten teknikoan aipatu bezala, prozedura hori aplikatzen da honako xede hauekin:

“...ahal den guztian bateragarri egitea zergari buruzko araudiaren aplikazioa eta gure kontabilitate-sistemak ematen duen informazioa...”.

Aurrekoari gehituta, eta 19/1992 Foru Legeko 53. artikulua aplikatuz, Udalak bederatzi urtez (erosketa egin eta hurrengotik hasita), higiezin kasuan, inbertsio-ondasunak eskuratzen jasandako kuotak erregularizatu behar ditu, eta higigarrien kasuan lau urtez jasandakoak, baldin eta erosketa-urtean aplikatutako behin betiko prorrataren eta erregularizazioa egiten den urtean aplikatutakoaren arteko aldea hamar puntu portzentaletik gorakoa bada.

Zehazki, 2012-2014 aldian, aurreko irizpide guztien aplikazioak berarekin ekarri du BEZa dela-eta kontusail honetan kontabilizatutako honako diru-sarrera zenbatekoak kontabilizatzea:

Nafarroako Gobernuaren diru-sarreraren xehetasunak	2012	2013	2014
Nafarroako Gobernua Jasandako BEZa, kasuko urtean kengarria dena	169.778,90	112.644,14	118.558,51
Nafarroako Gobernua BEZa, inbertsioen erregularizatzea	-376.050,98	-358.203,77	-342.559,50
Aitortutako eskubide garbiak, guztira. Nafarroako Gobernua Jasandako BEZa	-206.272,08	-245.559,63	-224.000,99

Nabarmentzekoa da erregularizazioaren zenbatekoa, ekitaldiko kuota kengarrien zenbateko txikiaren aldean. Horren arrazoa da zergari lotutako jardueren kopuruaren proportzioak nabarmen egin duela behera. Hartara, ondoren, azken 10 urte hauetako prorrataren ehunekoaren bilakaera erakutsiko dugu:

Urtea	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014
Prorrataren ehunekoa	27	9	5	13	16	1	9	1	1	1

Bestalde, kontzeptu ekonomiko horren pean kontabilizatzen dira, era berean, aldizkakoak ez diren beste diru-sarrera batzuk; besteak beste: kontratuak ez betetzearen ondoriozko zigorren ezarpena edo fidantzak; Sanferminetako kontsigna-zerbitzuaren bidezko diru-sarrerak; markesinetarako elektrizitate-horniduraren bidezko diru-sarrerak, eta abar.

Diru-sarrera horien kontrola eta erregistroa, batzuetan, Udalaren diru-bilketarako programaren bitartez egiten da zuzenean; beste batzuetan, hartatik kanpo, gerta daiteke kontabilitate-akatsak egotea. Izan ere, markesinetarako elektrizitate-horniduraren bidezko diru-sarrerak, 2013ko bigarren seihilekoari dagozkionez, 12.089 euro egiten dute, eta bi aldiz kontabilizatuta daude. Gainera, diru-sarrera hori jada kobratuta egon arren, kasuetako batean kobratzeko dagoela ageri da.

Gure gomendioak:

- *Jasandako BEZ kengarritik heldu diren kuoten kalkuluen zenbatespenak datu errealekin doitzea.*
- *Diru-sarrera batzuk kontabilizatzeko irizpideak argi ezartzea, kontabilitate-egitateen erregistroan bikoiztasunak saiheste aldera.*

VII.7. TRANSFERENTZIEN BIDEZKO ETA ONDAREAREN BIDEZKO DIRU-SARRERAK

Transferentzia arruntengatiko eta kapital-transferentziengatiko diru-sarrerak 96,03 eta 2,62 milioi euro egin zuten hurrenez hurren, eta diru-sarrera guztien ehuneko 52 dira.

Aurreko urteko datuekiko alderaketa:

Kontzeptua	Aitortutako eskubideak		2014/2013 aldea (%)
	2013	2014	
Transferentzia arruntak	94.540.297	96.031.403	1,6
Kapital-transferentziak	4.363.623	2.618.024	-40

Ikusten den bezala, 2013koarekin alderatuta, jokabidea desberdina da transferentzia mota zein den; hartara, transferentzia arruntek ehuneko 1,6 egin dute gora, eta kapitalekoek, berriz, ehuneko 40 behera.

2014an milioi bat eurotik gorako zenbatekoengatik jasotako transferentziak honako hauek izan ziren:

Kontzeptua	2014an aitortutako diru-sarrerak	Transferentzien bidezko diru-sarreraren guztizkoaren gaineko ehunekoa	Aurrekontuko diru-sarreraren guztizkoaren gaineko ehunekoa
Nafarroako Zerga Ogasuneko zergetako parte-hartzea	55.362.693	58	29
Hiriburutza agiria	23.401.274	24	12
Eskubide pasiboen finantzaketarako ekarpena	7.821.088	8	4
Oinarriko gizarte-zerbitzuarentzako diru-laguntza	3.393.701	4	2
Nafarroako Enplegu Zerbitzuko tailer-eskoletarako diru-laguntza	1.600.183	2	1
Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza: haur eskolak	1.479.359	2	1

Udalaren ondare bidezko diru-sarrerak, 2014an, 2,7 milioikoak izan dira, eta diru-sarreraren guztizkoaren ehuneko 1,4 egin dute. Diru-sarrera horien osaera honako hau da, aurreko ekitaldiarekin alderatuta:

Kontzeptua	Aitortutako eskubideak		2014/2013 aldea (%)
	2013	2014	
Banketxeetako kontuen korrituak	158.910	161.206	1
Dibidenduak eta mozkinetako partaidetzak	160.723	64.367	-60
Hiri finen eta lokalen errentamendua	875.301	746.013	-15
Emakidak eta kanonak	1.640.605	1.653.789	1
Aprobetxamendu bereziak	-1.254.968	-	-
Bestelako ondare diru-sarrerak	-	75.188	-
Guztira	1.580.571	2.700.563	71

Aztertutako lagina, ondorengo hau da:

Kontzeptua	Aitortutako eskubideak (2014)	Kobratutakoa 2014
Aprobetxamendu bereziak	0	-877.600*
Bestelako ondare diru-sarrerak	75.188	75.188

(*) Diru-sarreraren itzulketa.

Egindako azterketatik ondoriozta dezakegu ezen, oro har, diru-sarrera, kobrantza eta itzulketa guztiak egoki justifikatuta eta kontabilizatuta daudela.

VII.8. UDALAREN INBERTSIO ERREALEN BESTERENTZEA

Udalaren 2014ko diru-sarrerak, inbertsioen besterentzetik heldu direnak, 3,17 milioi eurokoak izan ziren. Ekitaldian aitortutako diru-sarreraren guztizkoaren ehuneko 1,7 egiten dute. Guztiaren ehuneko 82 lursailen salmentari dagokio.

Bi lotek osatutako lurzatien besterentze bat aztertu dugu. Haren datu aipagarrienak ondokoak dira:

Lurzatia	Zertarakoa	Prozedura	Zenbat lizitazio-tatzaile	Lizitazio-prezioa, BEZik gabe	Esleipen-prezioa, BEZik gabe
1. lotea: K1 Iturrama Berria (% 100eko jabetza)	Etxebizitza libreak	Enkantea	4	2.881.342	3.912.534
2. lotea: B Iturrama Berria (% 20,49ko jabetza)			1	545.525	545.525

Lursail horien salmenta hirigintza-legediaren eta aplikatzekoa den ondasunen gaineko araudiaren arabera izapidetu zen.

VII.9. ABENDUAREN 31N EBAZTEKO DAUDEN ERREKURTSO JUDIZIALAK

Udalaren Aholkularitza Juridikoak 300.000 eurotik gorako garrantzi unitario ekonomikoa duten eta 2014ko abenduaren 31n zeuden gorabeheren berri eman digu. Informazio hori ez dago kontu orokorraren oroitidazkian. Gauzatzeko dauden baliabide horien datu aipagarrienak honako hauek dira:

- Errekurtsio-egileen jabetzako finka bat dela-eta Nahitaezko Desjabetzerako Epaimahaiak finkatutako balio justua deuseztatzeko prozedura arrunta. Abenduaren 31n, Iruñeko Udalak aurkeztutako errekurtsioa ebatzeko zegoen. Hura baietsi ezean, 5.172.119 euro ordaindu beharko lituzke, gehi berandutza-interesak, 2008ko abuztutik hasi eta epaia bete artekoak.

Nabarmentzekoa da 2015eko uztailean, Auzitegi Gorenak ezetsi egin zuela Udalaren errekurtsioa; horrenbestez, arestian aipatu ditugun zenbatekoak ordaindu beharko ditu. Horri dagokionez, Udala kasuko aurrekontu-aldaketaren izapidetzea amaitzen ari da.

- Prozedura arrunta, ondare-erantzukizuneko espediente batengatik aurrera eramandakoa, udal planaren katalogoarekin lotutako gaiengatik. Haren zenbatekoak, demanda baiestekotan,

1.121.000 euro eginen luke; Udalak ordaindu beharko luke zenbateko hori. Epaia ez litzateke irmoa izanen eta apelazioa aurkez liteke.

- Enpresa batek aurkeztutako prozedura arrunta, Iruñeko berdegune batzuen mantentze- eta kontserbatze-kontratua likidatzearen aurkakoa, Udalak ez betetzeagatik 2012ko urriko eta azaroko fakturak ordaintzeko betebeharra. Zenbatekoa 904.416 eurokoa izan zen.

Kasu horretan, 2015eko urtarrilean, Administrazioarekiko Auzien Epaitegiak Udalaren jarduketa abalatu zuen. Gaur egun, ebazteko dago enpresak aurreko epai horren aurka aurkeztutako apelazio-errekurtsoa.

- Prozedura arrunta, Udalak administrazio-isiltasunaz ustez ordainketa bat ezetsi izanagatik, kontratu batean exekutatu diren baina aurreikusita ez zeuden aldaketa eta obra osagarri batzuei zegokiena. Errekurtsoa aurkeztu duen enpresak 835.659 euro (BEZik gabe) erreklamatzeko ditu.

Aurrekoari dagokionez, 2015eko apirilean, Administrazioarekiko Auzien Epaitegiak erabaki zuen Udalak 510.294 euro gehi berandutza-interesak ordaindu behar dituela. Horri dagokionez, jada indarrean dago ordainketa horri aurre egiteko aurrekontu-aldaketa.

- Prozedura arrunta, zeinaren bidez demanda-egileak Udalarari 534.810 euro erreklamatzeko baitzikio, hirigintza-jarduketako unitate batzuen birzatatzea dela eta. Kasu honetan, epaia, Udalaren kontrakoa bada, ez litzateke irmoa izanen, eta apelazioa aurkez liteke.

- Prozedura arrunta, zeinaren bidez ezetsi baitzen enpresa batek Udalaren erabaki baten aurka aurkeztutako berraztertze errekurtsoa. Erabaki haren bidez Iruñeko berdegune batzuen kontserbaziorako eta mantentzerako luzapen tazitua onetsi zen.

Demanda baietsiz gero, emandako zerbitzuen merkatu-balioa ordaindu beharko du Udalak – egiaztatzen den zenbatekoaren arabera, zehaztu gabe baitago–, gehi 2011ko apirilaren 30etik hasi eta epaia betetzen den unera arte sortutako berandutza-interesak. Oso litekeena da kopuru hori 300.000 eurotik gorakoa izatea.

- Prozedura arrunt bat, eraikin batean sortutako kalteak konpontzearekin lotutakoa. Zenbatekoa finkatzeko dago, baina oso litekeena da, kasu bakoitzean, 300.000 eurotik gorakoa izatea. Gaur egun aztertzen ari da modurik ba ote dagoen erantzukizun zibileko aseguru arduradain kopuru hori ordaintzeaz.

Gomendatzen dugu oroitidazkian informazioa ematea kasuan kasuko urteko abenduaren 31n ebazteko dauden errekurtsoei buruz, baldin eta haiek direla eta kalkulatu diren eragin ekonomikoak aipagarriak badira.

Txosten hau auditore Karen Moreno Orduña andreak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna, araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2015eko azaroaren 9an

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas.

BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK**ALEGAZIOEN IDAZKIA, IRUÑEKO UDALAREN 2014ko EKITALDIARI BURUZKO BEHIN-BEHINEKO FISKALIZAZIO-TXOSTENAREN PROPOSAMENA DELA ETA.**

Carlos Arrieta del Valle jaunak, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioeko Lehendakaritza, Funtzio Publiko, Barne eta Justizia Departamentuko Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiko Gizarte Prestazioen Zerbitzuko zuzendari gisa, honakoa azaltzen du:

2015eko abuztuaren 26an erakunde horren komunikazio bat jaso nuen; haren bidez, Iruñeko Udalaren 2014ko ekitaldiari buruzko behin-behineko fiskalizazio-txostenaren proposamenaren zati bat ematen zaigu jakitera. Txosten hori Kontuen Ganberako lehendakariaren 2015eko urriaren 22ko Ebazpenaz onetsi zen, eta deskribatzen du fiskalizazio-lanean zehar antzemandako okerra, Nafarroako Larrialdi Agentziari atxikita dagoen Iruñeko Udalaren suhiltzaileen kidegoko klase pasiboen finantzaketarekin lotutakoa. Azter genezan eta kasuko alegazioak aurkezteko eskuratu zitzaigun txostena, eta horretarako epea heldu den azaroaren 2an amaitzen da.

Ez nago ados txosten horren edukiarekin, eta hori dela-eta honakoa adierazi nahi dut:

1. - Egungo araudia, udal montepioen finantzaketari buruzkoa.

2012ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 19/2011 Foru Legeko – 2013. 2014. eta 2015. urteetan luzatu ziren aurrekontuak– 11.1 artikulua ezartzen du Nafarroako Gobernuak ekarpena egiten duela Nafarroako toki entitateen funtzionarioen pentsioak finantzatzeko, Udal Funtzionarioen Montepio Orokorrekoak diren kasuan; ekarpen hori banatuko da udal bakoitzari, Udal Funtzionarioen Montepio Orokorren kudeaketak 2011n sortutako kostuen ordainketarako, esleitu zaion kuotaren proportzian; 2. idatz-zatian gehitzen da, halaber, Nafarroako Gobernuak ekarpen bana egiten die Iruña, Tuterako eta Tafallako udalei, beraien montepioen kudeaketak 2015eko ekitaldian sortutako kostuen arabera. Artikulu horretako 3. idatz-zatiak ezartzen du aurreko idatz-zatietan ezarritako ekarpenen zenbatekoa izanen dela Nafarroako Administrazio Publikoen Montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboen araubide iragankorri buruzko martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legearen hamargarren xedapen gehigarria aplikatuta ateratzen dena.

Bestalde, aipatutako 10/2003 Foru Legeko hamargarren xedapen gehigarriak 1. idatz-zatian ezartzen du Nafarroako toki entitateek Nafarroako Udal Funtzionarioen Montepioko klase pasiboen kostu garbi osotarakoa finantzatzeko dutela, ehuneko 64,3 hain zuzen. Osotarako diru kopurua ez da inola ere 10.682.014 eurotik gorakoa izanen. 2002. urtetik aurrera, diru-muga horri kasuko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorrei buruzko foru legeak pentsioetarako finkatzen duen igoera aplikatuko zaio. 2. idatz-zatian, berriz, ezartzen du Iruña, Tafalla eta Tuterako udalek euren montepioko klase pasiboen urteroko kostu garbia finantzatzeko dutela, ehuneko 77,1ean. Osotarako diru kopurua ez da inola ere 9.312.961 eurotik, 454.520 eurotik eta 1.082.046 eurotik gorakoa izanen, hurrenez hurren. 2002. urtetik aurrera, diru-muga horiei kasuko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorrei buruzko foru legeak pentsioetarako finkatzen duen igoera aplikatuko zaie. Eta xedapen gehigarri horren 3. idatz-zatian ezartzen da aurreko kostu garbi osotarakoa finantzatzeko behar diren kopuru osagarriak Nafarroako aurrekontu orokorretatik hartuko direla.

Martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legean ezarritako finantzaketa-portzentajeek (Nafarroako toki entitateetatik, Iruñeko kasuan 100eko 64,3 eta Tafallako eta Tuterako udalen kasuan 100eko 77,1) 2003. urterako zegoen kontusailaren egoera islatzen dute. Helburua zen martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legearen aplikazioak inongo kostu gehigarririk ez ekartzea Nafarroako toki entitateentzat. Hori dela eta, antzinako Toki Administrazioeko Departamentuak emandako datuetan oinarrituta, ehuneko horiek ezarri ziren, ordua arte entitate horiek beren gain hartzen zuten kostuaren arabera direnak.

Xedapen horietan aipatutakotik ondorioztatzen da udal montepioen finantzaketarako zenbatekoa, oro har, Nafarroako toki entitateen kargurakoa eta Iruñeko Tafallako eta Tuterako udalen kargurakoa dena, aurrez aipatutako bi kopuruetatik txikiena izanen dela, eta aipatutako lau montepioetatik bakoitzaren

kostu garbi osotarako finantzatzeko behar diren kopuru osagarriak Nafarroako aurrekontu orokorren kargura finantzatzeko direla.

2. - Iruñeko Udalaren montepio bereki eta berariazkoaren finantzaketa.

Ondoren, Iruñeko Udalari dagokion egoerari buruzko deskribapen-taula bat jaso dugu, non biltzen baita urteko defizita (klase pasiboen kostu garbia: diru-sarrerak eta gastuak), bai eta Iruñeko Udalaren kargura den finantzaketa (letra lodiz ateratzen den zenbatekoa ageri da, aurrez adierazitako bi kopuruetatik txikiena) eta Nafarroako Gobernuak montepio horri egin beharreko ekarpena ere:

URTEA	Finantzaketa (Aurreko urtea)	Defizita Udala Udala	Nafarroako Gobernuaren ekarpena
2007	15.901.879,29 E.	A) 12.260.348,93 E. (100eko 77,1) B) 10.953.773,58 E. (gehieneko kopurua)	4.948.105,71 E.
2008	16.065.701,57 E.	A) 12.386.655,91 E. (100eko 77,1) B) 11.183.802,83 E. (gehieneko kopurua)	4.881.898,74 E.
2009	17.122.266,23 E.	A) 13.201.267,26 E. (100eko 77,1) B) 11.653.522,55 E. (gehieneko kopurua)	5.468.743,68 E.
2010	17.933.274,48 E.	A) 13.826.554,62 E. (100eko 77,1) B) 11.886.593,00 E. (gehieneko kopurua)	6.046.681,48 E.
2011	18.536.204,51 E.	A) 14.291.413,67 E. (100eko 77,1) B) 12.005.458,87 E. (gehieneko kopurua)	6.530.745,64 E.
2012	19.542.946,84 E.	A) 15.067.612,01 E. (100eko 77,1) B) 12.219.156,04 E. (gehieneko kopurua)	7.323.790,80 E.
2013	19.846.681,73 E.	A) 15.301.791,61 E. (100eko 77,1) B) 12.341.347,66 E. (gehieneko kopurua)	7.505.334,07 E.
2014	20.285.848,79 E.	A) 15.640.389,42 E. (100eko 77,1) B) 12.464.761,13 E. (gehieneko kopurua)	7.821.087,66 E.
2015	20.259.388,68 E.	A) 15.619.988,67 E. (100eko 77,1) B) 12.495.923,04 E. (gehieneko kopurua)	7.763.465,64 E.

3.- Nafarroako Gobernuaren 2006ko uztailaren 17ko erabakia. Horren bidez onesten da Nafarroako Gobernuak eta Iruñeko Udalak lortutako akordioa, Nafarroako Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzurako Partzuergoa desegin eta horrekin batera Iruñeko Udaleko Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzua Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuan sartzeari buruzkoa (2006ko abuztuaren 30eko 104. NAO n argitaratua).

Akordio horrek 2006ko irailaren 1etik aurrerako eraginak izanen ditu.

Hirugarren puntuko 2. idatz-zatiko a) eta b) letretan, honakoa ezartzen da hitzez hitz:

"a) Langile horiek Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren menpean egonen dira organikoki eta funtzionalki. Horrek ez du galarazten Iruñeko Udalaren Gizarte Babeserako Montepioaren eta Klase Pasiboen kudeaketa bateratua."

"c) Aurreikuspen sozialeko jatorrizko sistemari jarraituko dute (eskubide pasiboak eta osasun laguntza). Horretarako, Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioak bi diru-sarrera hauek egingen ditu hileroko alde batetik, aplikatu beharreko arauen arabera, udal montepioko kotizazio gisa transferitutako funtzionarioei atxikitako diru kopurua, eta, bestetik, langileen mailako hasierako soldatari, graduari eta antzinate-tasunari buruz patronala den aldetik dagokion kotizazioa, gaur egun % 65'51"

Hartara, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak, kontzeptu hori dela-eta, honako kopuruak transferitu dizkio Iruñeko Udalari:

URTEA	URTEKO KOPURUA
2007	1.019.421 euro.
2008	998.998 euro.
2009	1.022.531 euro.
2010	968.939 euro.
2011	967.238 euro.
2012	863.454 euro.
2013	864.487 euro.
2014	841.318 euro.

Transferentzia hori Funtzio Publikoaren Zuzendaritzako Langileriaren Gastuaren Kontrolaren eta Nominen Zerbitzuak egin izan du.

4.- Iruñeko Udalaren 2014ko ekitaldiari buruzko behin-behineko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberako lehendakariak 2015eko urriaren 22ko Ebazpenaz onetsia.

Iruñeko Udalaren 2014ko ekitaldiari buruzko behin-behineko fiskalizazio-txostenean, langile pasiboen lansarien atalean, honako akatsa aurkitu dugu:

Klase pasibo horien urteko kostu garbiaren kalkulua berraztertu dugu, Udalari dagokiona, eta honako hauek dira ondorioak:

Klase pasiboen barruan...

Egiaztatu dugu Udalak aipatutako akordioko b) letrari dagozkion diru-sarrerak jaso dituela. Halaber, Udalaren oroitidazkian inguruabar hori aipatzen da. Hala eta guztiz ere, klase pasibo horien urteko kostuari buruzko ziurtagirian, Udalak Nafarroako Gobernuarentzat egiten duen horretan, ez da jasotzen langile horien kuota patronalarengatik jasotako diru-sarrerari dagokion zenbatekoa, baina bai klase pasiboen araubideari atxikitako langileei nominan egindako atxikipenei dagokiena.

Azken batean, urteko kostu garbiari buruzko kalkuluan, ez da sartzen Udalak jasotzen duen diru-sarrera hori: 2014an 841.318 eurokoa izan zen Horrek berarekin dakar Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza,

hurrengo ekitaldian guztizko kostu garbia finantzatzeko ematen dena, beherantz doitu beharra dagoela, zenbateko horren arabera.

Aurreko urteetako urteko kostu garbia nola nortu den aztertu dugu (2006tik) eta azalduko akatsak honako zenbatekoak eduki zituen:

Urtea	Udalak suhiltzaileentzako kuota patronalaren kontzeptuan jasotako diru-sarrera
2007	1.019.421
2008	998.998
2009	1.022.531
2010	968.939
2011	967.238
2012	863.454
2013	864.487
Guztira	6.705.069

Aurreko taulak esan nahi du 2014an, urte horretan jaso baitzuen Udalak bere klase pasiboen 2013ko urteko kostu garbiaren defizita estaltzeko diru-laguntza, 864.487 euroko gehiegizko finantzaketa egon zela.

Ondorio horiek direla eta, Nafarroako Kontuen Ganberak honako gomendio hauek egiten ditu:

Klase pasiboen urteko kostuaren ziurtagirian sartzea Nafarroako Gobernutik jasotako diru-sarrera, Nafarroako Larrialdien Agentzian sartutako suhiltzaileen kidegoko langileengatik kuota patronalari dagokiona, kontu orokorrari buruzko oroitidazkian deskribatu bezala.

Nafarroako Gobernuarekin erregularizatzea eman zaizkion gehiegizko diru-kopuruak, klase pasiboen kostu garbiari dagozkionak.

5.- Alegazioak.

Iruñeko Udalaren montepio bereki eta berariazkoaren finantzaketari buruzko araudia, azaldu berri duguna, ikusita, honako alegazio hauek aurkezten ditut Iruñeko Udalaren 2014ko ekitaldiari buruzko behin-behineko fiskalizazio-txostenaren proposamena dela eta. Txosten hori Kontuen Ganberako lehendakariaren 2015eko urriaren 22ko Ebazpenaz onetsi zen, eta deskribatzen du fiskalizazio-lanean zehar antzemandako okerra, Nafarroako Larrialdi Agentziari atxikita dagoen Iruñeko Udalaren suhiltzaileen kidegoko klase pasiboen finantzaketarekin lotutakoa.

LEHENA.- Beste ezer baino lehen aipatu beharra dago kontua dela zehaztea ea Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak Iruñeko Udalari transferitutako kopuruak, 2006ko uztailaren 17ko Nafarroako Gobernuaren erabakiko 2. idatz-zatiko b) letrako hirugarren puntuan ezarritakoa aplikatuzetik heldu direnak –2014an 841.318 euro egin zuten– sartu behar diren ala ez diren sartu behar

Iruñeko Montepioaren klase pasiboen urteko kostu garbiaren kalkuluan, zeina aipatzen baitu Nafarroako administrazio publikoen montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboen araubide iragankorrari buruzko martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legeko hamargarren xedapen gehigarriak, udal montepioen finantzaketari buruzkoak.

Bada, eragin horietarako, adierazi beharra daukat ezen kopuru horiek, nire ustez, tratamendu berariazkoa, desberdina eta bereizia dutela Nafarroako Gobernuak Iruñeko Montepioaren finantzaketaren kontzeptuan egiten duen ekarpenarenaren aldean; hori dela eta, ez dira diru-sarrera gisa kontatu izan Iruñeko Montepioaren finantzaketari begira, zeren eta ez baitira, berez, enpresa-kotizazio bat; izan ere, gizarte aurreikuspeneko beste sistema batzuetan ez bezala –esate baterako Gizarte Segurantzaren sistema–, Nafarroako administrazio publikoetako montepioetan ez dago enpresa-kuotarik.

Eta horrelaxe behar du, zeren eta zenbatesten diren diru-sarrerak bakarrak langileen beraien kotizazio sozialak baitira. Ez dugu ahaztu behar banaketa-irizpideekin –ez kapitalizazio-irizpideekin– kudeatutako sistema bat dela.

BIGARRENA.- 2016ko uztailaren 17ko Akordioan jasotako terminoa, "patronalaren kotizazioarena", nire ustez nahasgarri eta desegokia da. Nahiz eta kuota patronala aipatzen den –nire ustez modu desegokian eta Gizarte Segurantzaren Sistema Orokorrearekiko parekotasunez–, akordio horrek –10/2003 Foru Legearen ondotik egina da, eta haren hamargarren xedapen gehigarriak udal montepioen finantzaketa arautzen du, baina ezin du aldatu– gehiago bilatzen du konpentsazio ekonomiko bat ezartzea Iruñeko Udalak bere gain hartu beharreko aparteko kostuak direla eta. Kostu horiek heldu dira funtzionario horiek beren buruarentzat edo beren senideentzat Iruñeko Montepioaren kargura sortutako prestazioen aitopenetik. Eta hori horrela da beste administrazio publiko bati –nola baita Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa, bertan baitaude sarturik– zerbitzu batzuk ematen zaizkiolako –ez zerbitzu berekiak baizik eta toki entitateaz kanpokoak, administrazio horrek Foru Diputazioko funtzionarioen montepio berekia bai baitu–.

Ez dugu ahaztu behar langile funtzionarioak direla, bere garian Nafarroako Su-itzaltze eta Salbamenduaren Zerbitzuaren Partzuergoari transferitutakoak eta gaur egun, 2016ko uztailaren 17ko Akordioa sinatu ondoren, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren Funtzio Publikoaren antolamenduan eta haren mende daudenak organikoki eta funtzionalki. Langile horiek administrazio horri zerbitzuak eman arren funtzionario bereki gisa, Montepioan kotizatzen dute, baina ez Foru Diputaziokoan (normala izanen zen bezala) baizik eta Iruñeko funtzionarioen montepioan (udal horren eskubide pasiboaren sistema bereki eta berariazkoa; izan ere administrazio horretatik heldu baitira langile horiek). Egoera hori ezohikoa da eta are irregularra ere, esanen nuke.

HIRUGARRENA. - "Urteko kostu garbiaren" kontzeptua, zeina aipatzen baita "Iruñeko Udalaren 2014ko ekitaldiari buruzko behin-behineko fiskalizazio txostenean", bai eta martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legeko hamargarren xedapen gehigarrian, udal montepioen finantzaketari begira, montepio horiexen erregulazioaren esparru berekian hartu beharra dago; izan ere, kontzeptu hori montepio horiek araudian bertan ezarritakoa zorrotz betez kalkulatu beharrekoa da. Hartara, Nafarroako administrazio publikoaren montepioetako langile funtzionarioen eskubide pasiboaren sistema berriari atxikitako langileei erreparatuta –martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legean aurreikusitakoa– urteko kostu garbia honako kalkulua eginez lortzen da: diru-sarrerak (zerbitzu aktiboko egoeran dauden langile funtzionarioen kuotak, kasuko montepioan altan edo antzeko egoeran daudenak) ken gastuak (kasuko ekitaldian ordaindutako prestazio ekonomikoaren zenbaterako). Gauza bera gertatzen da aipatutako foru legean aurreikusitakoaren aurreko eskubide pasiboaren sisteman.

Horrenbestez, ezin zaizkie diru-sarrerei egotzi "enpresa-kuota", zeren eta bera –aurreikuspen sozialeko beste sistema batzuek, esate baterako Gizarte Segurantzaren Sistemak, ez bezala– ez baitago jasota Nafarroako administrazio publikoaren montepioei buruzko araudian (ez sistema zaharrean, ez berrian, azken hori dauden montepio guztientzako dena).

LAUGARRENA.- Gainera, Iruñeko Udalaren 2014ko ekitaldiari buruzko behin-behineko fiskalizazio txostenean jasotako irizpideari jarraituz gero, kostu garbiaren interpretazioari dagokionez, azken batean hura diru-sarrera gisa kontatuz, Iruñeko finantzaketari begira, nire ustez "kuota patronala" deitutakoa dela-eta 2006ko uztailaren 17an Foru Komunitateko administrazio horren aberaste bidegabe bat gertatuko litzateke, zeren eta akordio hori betez ordaindutako kopuruak konpentsatuko balirateke ordaindu beharreko kopuru txikiagoekin, Iruñeko Montepioa finantzatzeko. Hartara, 2015ean, Nafarroako Gobernuaren ekarpena 841.318,25 euro txikiagoa izan zen; kopuru hori 2014an transferitu da.

Transferentzia hori Foru Komunitateko administrazio horrek, Iruñeko Udalaren montepio bereki eta berariazkoaren finantzaketaren kontzeptuan, jarri beharreko kopuruaren aurrerapen soil bat izanen litzateke, eta horrekin aipatutako akordioaren izpiritua eta xedea aldaraziko litzateke. Horren ondorioz, gainera, akordioak eraginkortasunik ez luke izanen eta haren ondorioak deusezak izanen lirateke; are gehiago kontuan hartua Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak Iruñeko Udalaren alde egin izan duen ekarpen bereziaren helburua eta xedea dela hari konpentsazio ekonomiko bat ematea funtzionarioen kolektiboaren egora berezia dela-eta –funtzionario horiek Foru Komunitateko Administrazioarenak dire-

lako eta hari ematen diotelako zerbitzua–, Iruñeko Udalak bere gain hartu beharreko kostuengatik, zeinak heldu baitira funtzionario horiek beren buruarentzat edo beren senideentzat Iruñeko Montepioaren kargura sortutako prestazioen aitorpenetik.

Azken batean, onespen berezi hori bilduta geratuko litzateke Foru Komunitateko Administrazioak, Iruñeko Udalaren montepio bereki eta berariazkoaren finantzaketaren kontzeptuan, jarri beharreko kopuru-etan; eta horrekin ekarpen berezi hori –zeinak udal hori ekonomikoki konpentsatzen baitu suhiltzaileen kolektibo horren egoera dela eta, egoera hori Iruñeko Udalarentzat karga handia delako, arestian aipatu dugun bezala– kopuru horietan diluituta geratuko litzateke; izan ere Udalak bere gain hartu behar ditu funtzionario horiek beren buruarentzat edo beren senideentzat sortutako prestazioen aitorpenetik heldutako kostu ekonomikoak, Iruñeko Montepioaren kargura, nahiz eta funtzionario horiek beste administrazio batekoak izan; hain zuzen ere, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioarenak.

Horrekin bi sistema desberdin nahasten egonen ginateke: bata banaketakoa (egungo sistema) eta bestea kapitalizaziokoa.

BOSGARRENA.- Horrenbestez,

udal montepioen finantzaketa (horien artean Iruñeko Udalaren Montepioa) honako diru-sarrereren iturri hauetatik heldu dira:

- Montepioari atxikitako funtzionario aktiboen ekarpenak.
- Udalaren ekarpena, jada aipatutako martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legeko hamargarren xedapen gehigarrian aipatutako bi kopuruetatik txikienera mugatua.
- Nafarroako Gobernuaren ekarpen osagarria, Nafarroako Aurrekontu Orokorren bidezkoa, udalen –kasu honetan Iruñeko Udalaren– gehiegizko kostua estaliko duena.

SEIGARRENA. - Azkenik aipatu beharra daukat harremanetan jarri naizela Iruñeko Udaleko ekonomia-eta aurrekontu-kudeaketaren arduradun Nuria Larráyoz Ilundáin andrearekin, toki administrazio horren jarrera ezagutzeko, eta hark bere iritzia jakinarazi didala. Bada, administrazio horren jarrera bat dator txosten honetan azaldutakoarekin, zeren eta uste baitugu kuota patronalaren kontzeptua okerra dela, existitzen ez delako; izan ere, suhiltzaileen ekarpenak beste jatorri bat dauka eta kostu garbia zuzen kalkulatu da.

Desadostasunerako edo gatazkarako arrazoirik ez dagoen arren, bat gatoz horri buruzko zalantza guztiak uxatzeko helburuan; izan ere, legearen interpretazioari begira, legearen testua berraztertu eta "kostu garbiaren" kontzeptua argi definitu beharko litzateke.

Halaber, eta azaldutako arrazoiak direla eta, 2006ko uztailaren 17ko akordioa ere berrikusi beharko litzateke.

Iruñean, 2015eko azaroaren 2an

Zerbitziburua: Carlos Arrieta del Valle

IRUÑEKO UDALAREN 2014ko EKITALDIARI BURUZKO FISKALIZAZIOKO BEHIN-BEHINEKO TXOSTENEAN JASOTAKO IRITZI SALBUESPENDUNAREN OINARRIARI BURUZKO TXOSTENA.

Iruñeko Udalaren 2014ko ekitaldiari buruzko behin-behineko fiskalizazio-txostenak, Kontuen Ganberak onetsi duenak, iritzian salbuespen bat dauka. Aipatzen da kalkulu horretan "ez dela sartu Nafarroako Gobernuaren eskutik jasotako diru-laguntza, 864.487 eurokoa, suhiltzaileen kidegoko langileen kuota patronalaren kontzeptuan ordaindutakoa; horrek, izan ere, kopuru hori egiten duen gehiegizko finantzaketa ekarri zuen".

10/2003 Foru Legeak, hamargarren xedapen gehigarrian, finkatzen du zein den Nafarroako Gobernuak Iruñeko, Tafallako eta Tuterako montepio berekiak finantzatzeko egin beharreko ekarpena, pentsioen kostu garbiari erreparatuta.

Lege horrek hiru titulu dauzka:

Lehenengoan gogoeta orokorrak arautzen ditu.

II. tituluak kotizazioak aipatzen ditu; hau da, diru-sarrerak. III. tituluak prestazioak aipatzen ditu; hau da, gastuak.

Egitura horretatik ondoriozta daiteke ezen foru legeak kostu garbiaz hitz egiten duenean hori esparruan integratuta ulertu beharra dagoela, eta legean bertan finkatutako zabalpenarekin. Horrenbestez, honako kenketaren emaitza izanen da: III. tituluko gastuak, hau da, pentsioak, ken II. tituluaren araututako diru-sarrerak, hau da, aktiboen kotizazioak.

Iruñeak pasibo-suhiltzaileen finantzaketarako jasotzen joan den ekarpenak jatorria du egoera aparteko, berezi batean, 10/2003 Foru Legearen aurrekoa izan eta Iruñeko Udalarentzat bereziki garestia izan dena, nola izan baitzen funtzionarioen multzo batek beren zerbitzu aktiboak entitate batean ematea eta pasibo-egoerara pasatzen zirenean Udalak ordaintzea haien erretiroa. Ekarpene hori sortu zen Suitzaltze Partzuergoa sortzearekin eta, gero, 2006an, Nafarroako Larrialdi Agentziak bere egin zuen. Nafarroako Gobernuak eta Iruñeko Udalak 2006an sinatutako akordio batean finantzaketa hori definitzea "kuota patronal" gisa hutsegite terminologo bat da, zeren eta montepioan ez baitago eta ez baita egon sekula halako kontzepturik, eta gure ustez horrek ezin baitu ez transferentziaren jatorria ez haren izaera aldatu, ez eta aldeek 2006an adierazitako borondatea ordeztu edo aldarazi ere. Kuota patronala deitu zitzaien zeren eta ekarpen edo finantzaketa kalkulatzeko baita langile aktiboen lansarien gainean, baina haren izaera Iruñeko Udalak lortzen duen beste transferentzia batena da, hain zuzen ere aipatutako egoera bereziki garesti horrekin lotutakoa.

Inolaz ere ezin da jo hori denik montepioetako pentsioen finantzaketa orokorra kalkulatzeko oinarri gisa balioko duen kostu garbia gutxitzeko elementua, Iruñeko Udalak hartarako eskubidea baitu 10/2003 Foru Legearen indarrez. Izan ere, foru lege horretan kontzeptu horren inongo aipamenik ez dago; atxiki-penak baizik ez dira aipatzen.

Bestalde, Nafarroako Gobernuaren eta Iruñeko Udalaren arteko akordio batek ezin du aldatu foru lege batean araututako ekarpen bat; are gutxiago honako hau kontuan hartuta:

1.- Foru lege horrek ez du zehazten zein elementu erabiliko diren kostu garbi hori kalkulatzeko, legean bertan jasotakoez –hau da, prestazioez eta kotizazioez– haratago. Eta horietatik dira 10. xedapen gehigarriak ukitzen dituen toki entitate guztiek amankomunean dituzten elementuak. Eta diru-sarreraren kontzeptua arauaren hitzez-hitzezotasunez haratago zabaltzen badugu, ongi aplika geniezaioke irizpide hori bera gastu-kontzeptuari eta kostu garbiaren terminoan kontuan hartu zuzeneko kostua (pentsioak) ez ezik, kostuak ere.

2.- Foru legeak finantzaketa-sistema arautzen du Partzuergoak ekarpen hori Iruñeko Udalari egin ondorengo une batean, eta legegilearen asmoa izan balitz ezen, Iruñeak jasan beharreko kostu garbiaren gehieneko zenbatekoak kalkulatzeko aldera, ekarpen hori beherapen gisa eta diru-sarrera kontzeptuan

aplikatu beharko litzatekeela, hala ezarri izanen zuen 10. xedapen gehigarrian. Une honetan bi transferentziak hirugarren berdinean –Nafarroako Gobernuan– metatuta egotea ez da arrazoia horietako bakoitzaren jatorria eta funtsa aldarazteko, ez eta, are gutxiagorik ere, Iruñeak, gainerako toki entitateek bezala, eskubidea duen zenbatekoak aldatzeko.

Kontuen Ganberak proposatzen duen interpretazioa, zeinak kostu garbiaren kontzeptua foru legean bertan araututako diru-sarreraren eta gastuen terminoiez haratago zabalitzen baitu, bai foru legearen bai 2006ko akordioaren izpirituaren eta xedearen aurkakoa izateaz gainera, halako egoera batera garamatza non suhiltzaileen montepioaren finantzaketaren ekarpena 10. xedapen gehigarrian araututako ekarpen orokorrean bilduta gera daitekeen; orduan, lehenengo Partzuergoaren sorrerarekin eta gero Nafarroako Larrialdi Agentzia sortzeko garaian egindako negoziazioaren emaitza den transferentzia galduko luke Udalak, eta hain zuen ere jada azaldutako egoera berezia berdintzera zetorrena.

Halaber, adierazi beharra dago ezen Udalak finantzaketari buruz suhiltzaileen montepioaren eskutik jasotzen duen informazioa beti Kontu Orokorraren espedienteko oroitidazki ekonomiko orokorreko datuetan jaso dela; eta Kontuen Ganberak Iruñeko Udalarari buruz 2013an egin zuen fiskalizazio-txostenean ere berariaz jasotzen da: "...Udalak kostu garbiaren ehuneko 77,1 finantzatzen du, langileei egindako atxikipenak deskontatuta... ". Sekula ere ez da auzitan jarri kalkulu horretan kotizazioei dagozkien atxikipenak baino kontzeptu gehiago deskontatu behar direla. Are gehiago, ukitutako administrazioetatik bakarrik ere ez ditu auzitan edo zalantzan jarri kostu garbia definitzen duten kontzeptuak, eta kontzeptu horren borondatea hain argia izan da non bi administrazioak bat baitatoz arauaren interpretazioan eta aplikazioan.

Iruñeko Udalaren iritzian, foru legean definitutako diru-sarrerak eta gastuak baizik ez dira kontuan hartu behar pentsioen kalkulu garbia egiteko, eta zuzentzat jotzen dugu Nafarroako Gobernuak egindako kalkulua.

Iruñean, 2015eko azaroaren 3an

Ekonomia- eta aurrekontu-kudeaketaren arduraduna: Nuria Larráyoz

ALKATEAK SINADURA EMATEKO OFIZIOA

Iruñeko Udalaren 2014ko ekitaldiari buruzko behin-behineko fiskalizazio-txostenak, Kontuen Ganberak onetsi duenak, iritzian salbuespen bat dauka. Aipatzen da kalkulu horretan "ez dela sartu Nafarroako Gobernuaren eskutik jasotako diru-laguntza, 864.487 eurokoa, suhiltzaileen kidegoko langileen kuota patronalaren kontzeptuan ordaindutakoa; horrek, izan ere, kopuru hori egiten duen gehiegizko finantzaketa ekarri zuen".

Salbuespena ikusita, udal honetatik zuzentzat jotzen dugu Nafarroako Gobernuak jarraitutako irizpidea, Iruñearen montepio berekiaren finantzaketarako ekarpen orokorra kalkulatzekoa, non pentsioen kostu garbiaren kalkuluan soilik sartzen baitira 10/2003 Foru Legean araututako gastuak eta diru-sarrerak. Aipatutako jarrera abalatzten duen txosten teknikoa gehitu dugu, eta alegazioak aurkezteko eskubideaz baliatuta, Ganberari eskatzen diogu behin betiko txostenetik salbuespen hori ken dezan.

Iruñean, 2015eko azaroaren 4an

Alkate-udalburua: Joseba Asirón

**BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI KONTUEN GANBERAK EMAN-
DAKO ERANTZUNA**

Eskerrak eman nahi dizkiegu Iruñeko Udalari eta Nafarroako Gobernuko Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuko Gizarte Prestazioen Zerbitzuari, aurkeztu dituzten alegazioengatik. Alegazio horiek behin-behineko txostenari eranstean zaizkio eta hori behin betikotzat hartzen da, egindako fiskalizazioaren azalpena direlako eta ez dutelako edukia aldatzen. Halere, Ganbera honek honako alderdiak aipatu nahi ditu:

NAFARROAKO GOBERNUKO LEHENDAKARITZAKO, FUNTZIO PUBLIKOKO, BARNEKO ETA JUSTIZIAKO DEPARTAMENTUKO GIZARTE PRESTAZIOEN ZERBITZUAREN ALEGAZIOEN ERANTZUNA.

1- Kontuen Ganberak Iruñeko Udaleko klase pasiboen urteko kostu garbiaren kalkulua aztertzeko jarraitu duen argudioa ez da legearen interpretazio bat; izan ere, kostu garbiaren definizioetik heldu da: alegazioen testuan bertan adierazi bezala kostu garbi hori lortzen da toki entitate horretako klase pasiboetatik heldu diren gastuen eta diru-sarreraren arteko kenketa egitetik.

2- Udalak honako diru-sarrera hauek dauzka urtero klase pasiboak finantzatzeko: langile aktiboekin egiten diren atxikipenak (horren barne direla Nafarroako Gobernuari transferitutako suhiltzaileen kidegoko langileak); Nafarroako Gobernutik jasotako transferentzia, "kuota patronalaren kontzeptuan", Udalak eta Gobernuak 2006an lortutako akordioa betetzetik heldu dena –haren bidez arautu zen Iruñeko Udaleko Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzua Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuan sartzea–; Nafarroako Gobernuaren ekarpena, urteko kostu garbia finantzatzeko egindakoa, 10/2003 Foru Legean ezarritakoa kontuan hartuta.

3- Klase pasiboen aurreikuspen sistema banaketa-irizpidearekin kudeatzen da, ez kapitalizazio-irizpidearekin. Horrexegatik urtero klase pasiboen finantzaketarako lortutako diru-sarrerak kontuan hartu beharrekoak dira urteko kostu garbia kalkulatzeko.

4- Transferentzia hori identifikatzen deneko kontzeptua zein den ere (kuota patronala, enpresa-kuota eta abar), klase pasiboen finantzaketarako diru-sarrera bat da eta, horrenbestez, kontuan hartu beharra dago kostu garbia kalkulatzeko, arestian aipatutako akordioa betez.

IRUÑEKO UDALAK AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEN ERANTZUNA

1- Oro har, Lehendakaritza, Funtzio Publiko, Barne eta Justizia Departamentuko Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiaren alegazioen erantzunean esandakora jotzen dugu.

2- Auditorian erabilitako prozedurak, Kontuen Ganberaren txostenetan berriaz aipatzen den bezala, laginketan eta sakontasun handiagoz ala gutxiagoz berrikusi beharreko alderdien hautaketan oinarritzen dira. Kontuen Ganberak Iruñeko Udalari buruz aurrez eman dituen txostenetan, Nafarroako Gobernuak Udalari klase pasiboak finantzatzeko emandako diru-laguntzei buruzko informazioa egiaztatu izan dugu, baina txostenaren norainokoa kostu garbiaren kalkularen berrikuspena aurreikusi gabe. 2014ko ekitaldiari buruz egindako fiskalizazioan berriaz sartu zen kalkulua hori laginaren barruan, eta, horrenbestez, txosten horretan aztertu da hori sakontasun handiagoz, eta txostenean jasotako ondorioetara iritsi gara.

3- Azken batean, txostenaren ondorioak berresten ditugu, eta aplikatzekoa den araudia kontuan hartuta, Udalak klase pasiboen urteko finantzaketara jasotako diru-sarrera guztiak, haien jatorria edo sailkapena zein den ere, kontuan hartu behar dira urteko kostu garbia kalkulatzeko, eta horien barruan, 2006an Nafarroako Gobernuaren eta Udalaren artean egindako akordioaren arabera jasotakoak, berriaz aurreikusi zirenak Nafarroako Gobernuari atxikitako Udaleko suhiltzaileen kidegoko langileen klase pasiboak finantzatzeko.

Iruñean, 2015eko azaroaren 9an

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas

